Gero, hala egokituz gero, kopuru edo ehunekoen bidez balioetsi ezin diren irizpideei izendatutako haztapena eskaintza ekonomikoak (Balio-irizpenak) eta/edo automatikoki balioetsitako irizpideak (2 zk. artxibo elektronikoa) irekitzeko eta irakurtzeko ekitaldi publikoan ezagutaraziko da. Kontratazio-organoak, behar besteko aurrerapenarekin, eskaintza ekonomikoak irekitzeko eta irakurtzeko ekitaldi publikoa egingo den data kontratatzailearen profilean argitaratuko du.

4.- Jarraian, hala egokituz gero, eskatutako txostenak egin ondoren, Mahaiak, aktarekin batera, bidaliko dio esleipen-proposamen egokia kontratazio-mahaiari, eta bertan, edozein kasutan, I Eranskineko A.I.18 apartatuan adierazitako irizpideen haztapena jasoko da.

5.- Interesdunei edozein komunikazio mota jakinarazteko, bitarteko elektronikoak erabiliko dira.

**II. KAPITULUA.- ESLEIPEN-PROPOSAMENA, ESLEIPENA, GAUZATZEA ETA FORMALIZATZEA.**

3.- La Mesa o, en su defecto, el órgano de contratación, una vez calificada la documentación presentada y subsanados, en su caso, los defectos u omisiones observados, establecerá las empresas que se ajustan a lo prescrito en la cláusula 21ª de este pliego, y procederá a hacer un pronunciamiento expreso sobre los admitidos a la licitación, los rechazados y sobre las causas de su rechazo.

En este mismo acto, procederá a la apertura del archivo electrónico nº 3 correspondiente a los criterios no valorables con cifras o porcentajes (juicio de valor), entregándose al órgano encargado de su valoración la documentación contenida en el mismo.

En todo caso, la apertura de esta proposición se efectuará en el plazo máximo de VEINTE (20) días contados desde la fecha de finalización del plazo para presentar las mismas.

Posteriormente, en su caso, la ponderación asignada a los criterios no valorables en cifras o porcentajes (juicios de valor) se dará a conocer en el acto público de apertura y lectura de las ofertas económicas y/o de los criterios valorados automaticamente (archivo electrónico nº 2).

El órgano de contratación publicará, con la debida antelación, en el perfil de contratante, la fecha de celebración del acto público de apertura y lectura de las ofertas económicas.

4.- Seguidamente, una vez emitidos, en su caso, los informes solicitados, la Mesa elevará, junto con el acta, al órgano de contratación la propuesta de adjudicación pertinente, que incluirá en todo caso la ponderación de los criterios indicados en el apartado A.I.18 del Anexo I.

5.- Cualquier tipo de comunicación a los interesados se efectuará mediante notificación por medios electrónicos.

**CAPÍTULO II.- DE LA PROPUESTA DE ADJUDICACIÓN, ADJUDICACIÓN, PERFECCIÓN Y FORMALIZACIÓN.**

**23.- ESLEIPEN-PROPOSAMENA.**

Kontratuaren esleipen-proposamenak ez du inolako eskubiderik sortzen proposatutako lehiatzailearen alde, ez baitu horrelakorik erdietsiko Udalaren aurrean, kontratua gauzatzen ez den arte.

SPKLko 152. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, kontratazio-organoak, kontratua gauzatu aurretik, kontratua ez esleitzea edo ez egitea, edo prozedurari uko egitea erabaki ahal izango du, baina espedientean justifikatu egin beharko da horretarako arrazoia.

**23.- PROPUESTA DE ADJUDICACIÓN**

La propuesta de adjudicación del contrato no crea derecho alguno en favor del licitador propuesto, que no los adquirirá, frente al Ayuntamiento, mientras no se haya formalizado el contrato.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 152 de la LCSP, la decisión de no adjudicar o celebrar el contrato o el desistimiento del procedimiento podrán acordarse por el órgano de contratación antes de la formalización, debiendo justificarse en el expediente la concurrencia de la causa.

**24.- KONTRATUA ESLEITZEA.**

***1.- Esleitu Aurretik Bete Beharrekoak:***

Kalitate-prezio erlaziorik onenaren proposamena egin duela kontsideratu den lehiatzaileak, horretarako erantzukizunezko adierazpenean aipatutako xehetasunak egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztu eta ondorengo apartatuetan adierazten diren jarduerak egin beharko ditu:

1.1.- Lehiatzaileen Erregistroa

Lizitatzailea Sektore Publikoko Lehiatzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean (ROLECE) edo Euskadiko Lehiatzaileen Erregistroan (REVASCON) inskribatuta dagoenean, edo Europar Batasuneko Estatu kide bateko datu-base nazionalean ageri bada, hala nola enpresaren espediente birtual batean, agiriak biltegiratzeko sistema elektronikoan edo aurrekalifikaziorako sistema batean, eta horiek doan eskura baditzakete aipatutako organoek, ez da behartua egongo aipatutako leku horietan inskribatutako datuen egiaztagiriak edo beste agiri-frogarik aurkeztera, eta aski izango da lehiatzaileak berariaz adieraztea dagokion Erregistroan edo datu-basean inskribatuta dagoela.

**24.- ADJUDICACIÓN DEL CONTRATO.**

***1.- Obligaciones Previas a la Adjudicación:***

El licitador cuya proposición haya sido considerada la de mejor relación calidad-precio, deberá aportar la documentación acreditativa de las circunstancias referidas en la declaración responsable y realizar las actuaciones que se señalan en los apartados siguientes:

1.1.- Registro de Licitadores

Cuando el licitador esté inscrito en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público (ROLECE) o en Registro de Licitadores Euskadi (REVASCON), o figure en una base de datos nacional de un Estado miembro de la Unión Europea, como un expediente virtual de la empresa, un sistema de almacenamiento electrónico de documentos o un sistema de precalificación, y éstos sean accesibles de modo gratuito para los citados órganos, no estará obligado a presentar los documentos justificativos u otra prueba documental de los datos inscritos en los referidos lugares, siendo únicamente necesario la manifestación expresa por parte del licitador de su inscripción en el Registro o base de datos correspondiente.

Erregistro horietan inskribatuta egoteak salbuetsi egingo ditu inskribatutako lehiatzaileak, bertan adierazitakoaren arabera eta kontrako frogarik egon ezean, kontratazio-deialdietan lizitatzailearen gaitasun-baldintzak aurkeztu behar izatetik, bere nortasunari eta jarduteko gaitasunari, ordezkaritzari, gaikuntza profesionalari edo enpresarialari, kaudimen ekonomiko eta finantzarioari eta sailkapenari dagokionez, baita kontratatzeko debekurik ez duela egiaztatu beharrari dagokionez ere.

La inscripción en dichos registros eximirá a los licitadores inscritos, a tenor de lo en él reflejado y salvo prueba en contrario, de la presentación en las convocatorias de contratación de las condiciones de aptitud del licitador en cuanto a su personalidad y capacidad de obrar, representación, habilitación profesional o empresarial, solvencia económica y financiera, y clasificación, así como de la acreditación de la no concurrencia de las prohibiciones de contratar que deban constar en aquél.

Ez da beharrezkoa Erregistroko inskripzioarekin batera Udaleko Abokatu batek egindako ahalordeen askiespena gehitzea, ordezkaritza hori inskribatuta badago.

No es necesario acompañar a la inscripción en el Registro, el bastanteo de poderes realizado por un Letrado del Ayuntamiento cuando dicha representación conste inscrita.

SPKLko 139.1. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, proposamenak aurkezteak esan nahi du kontratazio-organoari eta mahaiari baimena ematen zaiola aipatutako Erregistro Ofizial horietan edo Europar Batasuneko Estatu kide batean operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan jasotako datuak kontsultatzeko.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 139.1 de la LCSP, la presentación de las proposiciones supone la autorización a la mesa y al órgano de contratación para consultar los datos recogidos en los referidos Registros Oficiales o en las listas oficiales de operadores económicos en un Estado miembro de la Unión Europea.

Eskatutako beste edozein agiri, ROLECEn edo REVASCONen inskribatuta ez badago eta hurrengo atalean adierazita badago, bertan ezarritako epeetan aurkeztu beharko da.

Cualquier otra documentación exigida que no figure inscrita en el ROLECE o REVASCON, y venga señalada en el apartado siguiente, deberá presentarse en los plazos en él establecidos.

1.2.- ROLECEn edo REVASCON erregistroan inskribatuta egoteko betebeharra eskatu ezin den kasuetan, edo datu edo dokumenturen bat erregistro horretan inskribatuta ez dagoenean, proposatutako lizitatzaileak erantzukizunpeko adierazpenean adierazitako inguruabarrak egiaztatzen dituen dokumentazioa aurkeztu beharko du, horretarako eskatzen zaionetik HAMAR (10) laneguneko epean, eta ondoren adierazten diren jarduketak egin beharko ditu.

1.2.- En aquellos casos en los que no resultara exigible la obligación de figurar inscrito en el ROLECE O REVASCON, o cuando alguno de los datos o documentos no constaran inscritos en el referido Registro, el licitador propuesto, en el plazo de DIEZ (10) días habiles desde que fuera requerido para ello, deberá aportar la documentación acreditativa de las circunstancias referidas en la declaración responsable y realizar las actuaciones que se señalan a continuación.

Agiri horien barruan, dela jatorrizkoan, dela kopian edo dela fotokopia autentifikatuan, ondorengo hauek bilduko dira, eta aparteko orri batean adieraziko da horiei dagokien zerrenda zenbakiduna:.

La documentación contendrá en original, copia o fotocopia autentificada, los siguientes documentos, cuya relación numérica deberá hacerse constar en hoja independiente:

*1.2.a) Jarduteko gaitasuna.*

Lizitatzailearen eta, hala badagokio, haren ordezkariaren nortasun juridikoa, honela egiaztatuko da:

*1.2.a) Capacidad de obrar.*

La personalidad jurídica del licitador y, en su caso, su representación, se acreditarán:

❂ Enpresa indibiduala bada, Nortasun Agiri Nazionala edo dagokion estatuko agiri baliokidea aurkeztu beharko du, enpresaburu indibidual ez-espainiarren kasuan.

❂ Si la empresa fuera individual, mediante la presentación del documento Nacional de Identidad, o equivalente de su estado respectivo cuando se trate de empresarios individuales no españoles.

❂ Enpresa pertsona juridikoa bada, eraketaren eskritura edo agiria, bere jarduera arautzen duten arauak agertzen diren estatutuak edo fundazio-ekintza, hala egokituz gero, dagokion pertsona juridikoaren arabera egoki den Erregistro Publikoan behar bezala inskribatuak, eta halaber, Identifikazio Fiskalaren Zenbakia (IFZ).

❂ Si la empresa fuera persona jurídica, la escritura o documento de constitución, los estatutos o acto fundacional en los que conste las normas por las que se regula su actividad, debidamente inscritos, en su caso, en el Registro Público que corresponda según el tipo de persona jurídica de que se trate, así como el Número de Identificación Fiscal (NIF).

❂ Europar Batasuneko Estatu kideetako edo Europako Eremu Ekonomikoari buruzko Hitzarmena sinatu duten Estatuetako nazionalak diren lizitatzaile ez-espainiarren jarduteko gaitasuna dagokion erregistroan inskribatuta egiaztatu beharko da, haiek ezarrita dauden Estatuko legeriarekin bat etorriz, edo bestela, zinpeko adierazpen bat edo aplikatu beharreko xedapen komunitarioekiko adostasunaren ziurtagiri bat aurkeztuz.

❂ La capacidad de obrar de los licitadores no españoles que sean nacionales de Estados miembros de la Unión Europea o de Estados signatarios del Acuerdo sobre el Espacio Económico Europeo, se acreditará por su inscripción en el registro procedente, de acuerdo con la legislación del Estado donde estén establecidos o mediante la presentación de una declaración jurada o un certificado de acuerdo con las disposiciones comunitarias de aplicación.

❂ Aurreko paragrafoaren barruan aipatzen ez diren enpresa atzerritarrak direnean, dagokion Estatuan Espainiak duen Misio Diplomatiko Iraunkorraren txostena edo Kontsul Bulegoarena, enpresaren helbidea kokatuta dagoen lurralde-eremukoa, eta bertan, halaxe agerraraziko da, enpresaren aldez aurreko egiaztapena.

❂ Cuando se trate de empresas extranjeras no comprendidas en el párrafo anterior, informe de la Misión Diplomática Permanente de España en el Estado correspondiente o de la Oficina Consular en cuyo ámbito territorial radique el domicilio de la empresa, en el que se haga constar, previa acreditación por la empresa.

❂ Nazioarteko hitzarmenak direla eta Espainiak obligazio batzuk aplikatu behar dituen arren, Europar Batasunekoak ez diren Estatuetako edo Europako Eremu Ekonomikoari buruzko Hitzarmena sinatu duten Estatuetakoak ez diren pertsona fisiko nahiz juridikoek justifikatu egin beharko dute, txosten baten bidez, enpresa atzerritarraren jatorrizko Estatuak onartu egiten duela Espainiako enpresek sektore publikoko entitateen kontratazioan parte har dezaketela, SPKLko 3. artikuluan zerrendatutakoekin parekagarriak eta antzeko baldintzetan. Txosten hori Espainiak atzerrian duen Bulego Ekonomiko eta Komertzialak prestatuko du eta aurkezten diren agiriekin batera joango da.

❂ Sin perjuicio de la aplicación de las obligaciones de España derivadas de acuerdos internacionales, las personas físicas o jurídicas de Estados no pertenecientes a la Unión Europea o de Estados signatarios del Acuerdo sobre el Espacio Económico Europeo deberán justificar mediante informe que el Estado de procedencia de la empresa extranjera admite a su vez la participación de empresas españolas en la contratación con los entes del sector público asumibles a los enumerados en el artículo 3 de la LCSP, en forma sustancialmente análoga. Dicho informe será elaborado por la correspondiente Oficina Económica y Comercial de España en el exterior y se acompañará a la documentación que se presente.

Erregulazio harmonizatua duten kontratuetan, ez da beharrezkoa izango elkarrekikotasunari buruzko txostena Merkataritzaren Mundu Erakundearen Kontratazio Publikoari buruzko hitzarmena sinatu duten Estatuetako enpresekin loturik.

En los contratos sujetos a regulación armonizada se prescindirá del informe sobre reciprocidad en relación con las empresas de Estados signatarios del acuerdo sobre Contratación Pública de la Organización Mundial de Comercio.

❂ Baldin eta esleipenduna enpresa-talde bat bada, Aldi Baterako Enpresa Batasun gisa legalki eratua dagoela eta haren IFK akreditatu beharko ditu.

❂ Si el adjudicatario resultase una agrupación de empresas deberá acreditar su constitución legal como Unión Temporal de Empresas y el C.I.F. de la misma.

❂ Enpresa atzerritarrek beren agiriak ofizialki gaztelaniara edo euskarara itzulita aurkeztuko dituzte.

❂ Las empresas extranjeras presentarán su documentación traducida de forma oficial al castellano o al euskera.

❂Beste baten izenean agertzen edo proposamenak sinatzen dituztenek edo pertsona juridiko bat ordezkatzen dutenek ordezkariaren ahalordeen eskriturak edo egiaztagiriak gehitu beharko dituzte, udaleko zerbitzu juridikoek behar bezala askietsiak. Askiespen hori erdiesteko, Aholkularitza Juridikoari agiri hauek igorri beharko dizkiote:

❂ Los que comparezcan o firmen proposiciones en nombre de otro o representen a una persona jurídica, deberán acompañar escrituras u documentación acreditativa de las facultades del representante debidamente bastanteada por los servicios jurídicos municipales. Para la obtención del bastanteo deben hacer llegar a la Asesoría Jurídica los siguientes documentos:

* Ordezkariaren jatorrizko NAN.

* Lehiaketa publikoetan parte hartzeko pertsona juridikoaren gaitasuna eta entitateko ordezkariaren ahalmenak egiaztatzen dituzten agiriak.

* DNI original del representante.

* Documentación que acredite la capacidad de la persona jurídica y de las facultades del representante de la entidad para participar en licitaciones públicas.

* Lehiaketaren ekintza zehatzerako emandako ahalorde bereziak izan ezean, ahalorde horiek Merkataritza Erregistroan inskribatuta agertu behar dute, sozietateen kasuan.

* Salvo que se trate de poderes especiales otorgados para el acto concreto de la licitación, deberá constar la inscripción de los poderes en el Registro Mercantil, en caso de sociedades.

Askiespena udaleko zerbitzu juridikoek egingo dute, dokumentazio administratiboa kalifikatzeko prozesuan.

El bastanteo se realizará por los servicios jurídicos del ayuntamiento en el proceso de calificación de la documentación administrativa.

*1.2.b) Kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala*

*1.2.b) Solvencia económica, financiera y técnica o profesional*

Lehiatzaileek, aukeran, kaudimen ekonomikoaren, finantzarioaren eta tekniko edo profesionalaren betebehar berezien bidez egiaztatu dezakete beren kaudimena, baldintza-orri hauetako I Eranskineko A.I.14 eta A.I.15 apartatuetan zerrendatzen diren baldintzetan eta bitartekoen bidez, edo bestela, hala egokituz gero, apartatu horretan adierazitako multzo edo azpimultzoko eta kategoriako sailkapenaren bidez.

Los licitadores podrán acreditar indistintamente su solvencia mediante los requisitos específicos de solvencia económica, financiera y técnica o profesional en los términos y por los medios que se relacionan en los apartados A.I.14 y A.I.15 del Anexo I al presente pliego, o bien, en su caso, mediante su clasificación en el grupo o subgrupo y categoría que se indiquen en el citado apartado.

Ondorio horiei begira, kontratatzeko baimendutako enpresaburuen zerrenda ofizialen ardura duten organo eskudunek luzatutako inskripzio-egiaztagiriak, ziurtagiria luzatzen duen Estatu kidean ezarritako lizitatzailei buruz Europar Batasuneko Estatu kideek ezarriak, gaitasunaren presuntzio bat izango dira bertan agertzen diren hautapen kualitatiborako betebeharrei dagokienez.

A estos efectos, los certificados de inscripción expedidos por los órganos competentes de la llevanza de las listas oficiales de licitadores autorizados para contratar, establecidas por los Estados miembros de la Unión Europea referidos a empresarios establecidos en el Estado miembro que expide el certificado, constituirán una presunción de aptitud con respecto a los requisitos de selección cualitativa que en ellos figuren.

Presuntzio-balio berbera izango dute, bertan ziurtatutako alderdiei dagokienez, lizitatzailea ezarrita dagoen Estatu kideko legeriarekin bat etorriz Europako ziurtapen-arauak betetzen dituzten ziurtapen-erakunde eskudunek luzatutako ziurtagiriek.

Igual valor presuntivo surtirán, respecto de los extremos en ellos certificados, las certificaciones emitidas por organismos de certificación competentes que respondan a las normas europeas de certificación expedidas de conformidad con la legislación del Estado miembro en que esté establecido el licitador.

Aurreko apartatuak aipatzen dituen agiri horietan adierazi egin beharko da zein erreferentziak baimendu duen lizitatzailea zerrendan inskribatu ahal izatea edo ziurtagiria luzatzea, baita erdietsitako sailkapena ere.

Los documentos a que se refiere el apartado anterior deberán indicar las referencias que hayan permitido la inscripción del licitador en la lista o la expedición de la certificación, así como la clasificación obtenida.

Kontratazio-organoaren ardura da erabakitzea ea aurkeztutako dokumentazioak behar bezainbat justifikatzen dituen lizitatzailearen kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta kaudimen teknikoa.

Corresponde al órgano de contratación determinar si la documentación presentada justifica suficientemente la solvencia económica y financiera y la solvencia técnica del licitador.

Baldin eta, arrazoi justifikatuengatik, ezin baditu eskatutako erreferentziak eman, administrazioak nahikotzat jotako beste edozein dokumentazioren bidez egiaztatu ahal izango du kaudimen ekonomiko, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala.

Si por razones justificadas no se pudiera facilitar las referencias solicitadas, se podrá acreditar la solvencia económica, financiera, técnica o profesional por cualquier otra documentación considerada como suficiente por el Ayuntamiento.

*1.2.c) Zerga Betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak*

1.2.c.1) Ekonomia Jardueren Zergan (EJZ) kontratuaren xedeari dagokion epigrafean alta emanda dagoela dioen egiaztagiria. Hori egiaztatzeko, aurtengo ekitaldiari dagokion alta edo EJZren azken ordainagiria aurkeztu beharko da, zerga horren matrikulan baja eman ez duela dioen erantzukizunezko adierazpenarekin batera.

Zerga honetatik salbuetsita dauden subjektu pasiboek salbuespenaren erantzukizunezko adierazpena aurkeztu beharko dute.

Enpresaburuen aldi baterako batasunek, eraketa gauzatu ondoren, zergan alta eman izana egiaztatu beharko dute, eta horren barruan dauden enpresei dagokien zerga ordaindu beharra izango dute.

1.2.c.2) Dagokion Aldundiko edo Estatuko Zerga Administrazioaren Bulegoak ezarritako zerga-betebeharrak bete izanari buruzko ziurtagiri positiboa, eta bertan, APKLAOeko 13. artikuluan ezarritako betebeharrak bete izana jasoko da.

Gainera, ez du zerga izaerako zorrik eduki behar Lasarte-Oriako Udalarekin ordainketa gauzatzeko epealdian. Udalak, ofizioz, Diruzaintzan ageri diren datuen bitartez egiaztatuko du obligazio hori betetzen dela.

*1.2.c) Obligaciones Tributarias y con la Seguridad Social.*

1.2.c.1) Justificante de hallarse de alta en el Impuesto de Actividades Económicas (IAE) en el epígrafe correspondiente al objeto del contrato. Esta se acreditará mediante presentación del alta referida al ejercicio corriente o del último recibo del IAE, completado con una declaración responsable de no haberse dado de baja en la matrícula del citado impuesto.

Los sujetos pasivos que estén exentos del impuesto deberán presentar declaración responsable indicando la causa de exención.

Las uniones temporales de empresarios deberán acreditar, una vez formalizada su constitución, el alta en el impuesto, sin perjuicio de la tributación que corresponda a las empresas integrantes de la misma.

1.2.c.2) Certificación positiva relativa al cumplimiento de las obligaciones tributarias expedidas por la Agencia de Administración tributaria Foral o Estatal que corresponda, en la que se contenga genéricamente el cumplimiento de los requisitos establecidos en el art. 13 del RGLCAP.

Además, no deberá tener deudas de naturaleza tributaria en período ejecutivo de pago con el Ayuntamiento de Lasarte-Oria. El ayuntamiento, de oficio, comprobará mediante los datos obrantes en la Tesorería el cumplimiento de dicha obligación.

1.2.c.3) Gizarte Segurantzarekiko obligazioak betetzeari buruzko ziurtagiri positiboa, Gizarte Segurantzako Diruzaintzak luzatua, eta bertan APKLAOeko 14. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatuko da.

1.2.c.3) Certificación positiva relativa al cumplimiento de las obligaciones con la Seguridad Social expedidas por la Tesorería de la Seguridad Social, en la que se contenga genéricamente el cumplimiento de los requisitos establecidos en el art. 14 del RGLCAP.

Urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategineko Hemezortzigarren Xedapen Gehigarriarekin bat etorriz, erregimen berezian alta emanda egon behar izatetik salbuetsita dauden profesional elkargokideek, baldin eta dagokion elkargo profesionaleko Gizarte Aurreikuspenerako Mutualitatean sartzea aukeratzen badute edo lehendik aukeratu badute, dagokion Mutualitatearen ziurtagiri bat aurkeztu beharko dute, bertako kide direla egiaztatzen duena.

Los profesionales colegiados que, de conformidad con la Disposición Adicional Decimoctava del texto refundido de la Ley General de la Seguridad Social, aprobado por Real Decreto Legislativo 8/2015, de 30 de octubre, estén exentos de la obligación de alta en el régimen especial y que opten o hubieran optado por incorporarse a la Mutualidad de Previsión Social del correspondiente colegio profesional, deberán aportar una certificación de la respectiva Mutualidad, acreditativa de su pertenencia a la misma.

Ziurtagiri hori aurkeztu arren, interesatua ez da salbuetsita egongo baldintza-orri hauetan adierazten diren gainerako obligazioak egiaztatu behar izatetik bere ardurapean langileak dituenean, eta horrela egiten ez badu, erantzukizunezko adierazpen baten bidez justifikatu beharko du xehetasun hori.

La presentación de dicha certificación no exonera al interesado de justificar las restantes obligaciones que se señalan en el presente pliego cuando tenga trabajadores a su cargo, debiendo, en caso contrario, justificar dicha circunstancia mediante declaración responsable.

Baldin eta HAMABI (12) hilabeteko aldia igaro bada SPKLko 71.1.d) artikuluko zerga-obligazioak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari buruzko egiaztagiri positiboak egin ziren egunetik, esleipendunak berritu egin beharko ditu eta egiten duen hurrengo fakturarekin batera aurkeztu beharko ditu, horiek gabe ez baitzaio fakturarik ordainduko.

Nolanahi ere, espresuki Lasarte-Oriako Udalari baimena eman dezake Udala Foru Aldundiaren Zerga Administraziora eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrera joan dadin eta zerga-informazioa eta soziolaborala eskuratu dezan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 43.1.e). artikuluak eta Langileen Estatutu Orokorraren 42. artikuluak beharresten dituzten xedeak konpli daitezen.

El adjudicatario, transcurrido el período de DOCE (12) meses desde la fecha en que fueron expedidas las certificaciones positivas relativas al cumplimiento de las obligaciones tributarias y de Seguridad Social del art. 71.1.d) de la LCSP, deberá renovar las mismas y deberá presentarlas junto a la próxima factura que expida, sin las cuales no se pagará ésta.

En todo caso, podrá autorizar expresamente al Ayuntamiento de Lasarte-Oria para acudir a la Administración Tributaria Foral y a la Tesorería General de la Seguridad Social y acceder a la información tributaria y socio-laboral a los efectos de cumplir los fines exigidos en el art. 43.1.e) de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa y artículo 42 del Estatuto General de los trabajadores.

*1.2.e) Kaudimena kanpo-bitartekoen bidez egiaztatzea*

*1.2.e) Integración de la solvencia con medios externos.*

Lehiatzaileek beste enpresa batzuen kaudimen eta baliabideetara jotzen badute, SPKLko 75. artikuluarekin bat etorriz, aurrekoaz gain, ondorengo agiriak aurkeztu beharko dituzte:

En el supuesto de que los licitadores recurran a la solvencia y medios de otras empresas de conformidad con el artículo 75 de la LCSP, deberán presentar además, la siguiente documentación:

Lehiatzaileak aipatutako entitate horiek sinatutako konpromiso bat aurkeztu beharko du, eta bertatik ondorioztatuko da kontratua gauzatzen den bitarte guztian lehiatzailearen esku jarriko dituztela konprometitutako kaudimena eta baliabideak, eta horrez gain, bi enpresa horien erlazioari buruzko informazio garrantzitsua agertuko da, ondorengo puntu hauek jasotzen dituela:

El licitador deberá presentar un compromiso por escrito firmado por dichas entidades, del que se derive que durante toda la duración de la ejecución del contrato, ponen a disposición del licitador la solvencia y medios a los que se compromete y en el que además de figurar la información pertinente sobre la relación de ambas empresas se contengan los siguientes puntos:

a) Ordezkatzen duen sozietatea balio osoz eratuta dagoela eta adierazpenaren sinatzaileak haren ordezkaritza egokia hartua duela bere gain.

a) Que la sociedad a la que representa está válidamente constituida y que el firmante de la declaración ostenta la debida representación de la misma.

b) Lehiaketan parte hartuko duen enpresaren esku kontratua gauzatzeko behar izan ditzakeen giza baliabideak eta bitarteko material eta ekonomikoak jartzeko konpromisoa hartzen duela.

b) Que se compromete a poner a disposición de la empresa participante en la licitación los medios personales, materiales y económicos que pudiera precisar en la ejecución del contrato.

c) Enpresa horrek solidarioki erantzungo duela, lehiaketan parte hartzen duen enpresarekin, kontratua gauzatzeko orduan.

c) Que la empresa responderá solidariamente, con la empresa participante en la licitación, en la ejecución del contrato.

Lehiatzaileak horrelako enpresa batera edo batzuetara jotzen badu, enpresa horiek Klausula honen aurreko apartatuetan aipatutako dokumentazio guztia aurkeztu beharko dute.

La empresa o empresas a las que recurre el licitador deberán presentar toda la documentación referida en los apartados anteriores de esta Cláusula.

1.2.f) Baldin eta, SPKLko 76.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, baldintza-orri hauetako I Eranskineko A.I.16 apartatuan ezartzen bada adierazi daitezela prestazioa betetzeko atxikitako langileen izenak eta prestakuntza profesionala, dokumentazio hori aurkeztu beharko da.

1.2.f) En el supuesto que, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 76.1 de la LCSP, se hubiera establecido en el apartado A.I.16 del Anexo I, de este pliego, que se especifiquen los nombres y la cualificación profesional del personal adscrito al desempeño de la prestación, se deberá aportar dicha documentación.

*1.2.g) Behin Betiko Bermea.*

Behin betiko bermea jarri beharko du, 9. klausulan adierazitako moduan eta zenbatekoan eta, hala egokituz gero, baita berme osagarria ere.

*1.2.g) Garantía Definitiva.*

Deberá constituir la garantía definitiva en la cuantía y forma indicadas en la cláusula 9 y, en su caso, la garantía complementaria.

*1.2.h) Aseguruak.*

Eskatuz gero, aseguru-polizaren kopia aurkeztu beharko du, 32. klausulan adierazitako zenbatekoan eta forman.

*1.2.h) Seguros.*

De exigirse, deberá entregar copia de la póliza de seguros constituida en la cuantía y forma indicadas en la cláusula 32.

1.3.- Mahaiak edo, horrelakorik ezean, kontratazio-organoak lehiatzaileei eskatuko die aurkeztu ditzatela egiaztagiri guztiak eta horien parte bat, baldin eta adierazpenaren indarraz edo fidagarritasunaz arrazoizko zalantzak daudela jotzen badute, prozedura egoki garatzeko beharrezkoa denean eta, edonola ere, kontratua esleitu aurretik.

1.3.- La Mesa o, en su defecto, el órgano de contratación podrá pedir a los licitadores que presenten la totalidad o una parte de los documentos justificativos, cuando consideren que existen dudas razonables sobre la vigencia o fiabilidad de la declaración, cuando resulte necesario para el buen desarrollo del procedimiento y, en todo caso, antes de adjudicar el contrato.

1.4.- Esleipendun gisa proposatutako lehiatzaileak lehiaketa-prozedura batean parte hartzeko aldez aurreko baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak aurkezten dituenean, Mahaiak edo, horrelakorik ezean, kontratazio-organoak kalifikatu egingo ditu aurkeztutako agiriak, eta konpondu daitezkeen akatsak ikusten baditu, lizitatzaileari HIRU (3) eguneko epea emango dio horiek zuzentzeko eta, hala egokituz gero, BOST (5) eguneko epea, argibideak eman edo agiri osagarriak aurkezteko.

1.4.- Cuando el licitador propuesto como adjudicatario haya aportado la documentación acreditativa del cumplimiento de los requisitos previos para participar en un procedimiento de licitación la Mesa o, en su defecto, el órgano de contratación calificará la documentación aportada y si observase defectos subsanables, otorgará al licitador un plazo de TRES (3) días para que los corrija y, en su caso, un plazo de CINCO (5) días para que presente aclaraciones o documentos complementarios.

Baldin eta arestian aipatutako dokumentazio guztia ez bada seinalatutako epean behar bezala betetzen, lehiatzaileak bere eskaintza erretiratu egin duela ulertuko da, eta lehiaketaren oinarrizko aurrekontuaren % 3, BEZ kanpo, (5.550,00 €) eskatuko zaio zigor gisa, eta lehenik behin-behineko bermearen aurka gauzatuko da, horrelakorik eratu badu, kontratatzeko debekuei buruz SPKLko 71.2.a). artikuluan ezarritakoaren kaltetan izan gabe.

Si en el plazo señalado no se cumplimenta adecuadamente toda la documentación citada anteriormente, se entenderá que el licitador ha retirado su oferta, procediéndose a exigirle el importe del 3% del presupuesto base de licitación, IVA excluido, (5.550,00 €) en concepto de penalidad, que se hará efectivo en primer lugar contra la garantía provisional, si la hubiera constituido y sin perjuicio de lo establecido en el artículo 71.2.a) de la LCSP, relativo a las prohibiciones de contratar.

1.5.- Dokumentazioa kalifikatu ondoren, Mahaiak erabakiko du Administrazioarekin kontratatzeko legez ezarritako betebeharrak egoki betetzen diren edo, horrela ez bada, lehiatzailea prozeduratik kanpo uztea aginduko du eta hurrengo lehiatzailearen aldeko esleipen-proposamena igorriko dio kontratazio-organoari, eskaintzak sailkatu diren hurrenkeraren arabera. Hala bada, HAMAR (10) egun balioduneko epea emango zaio aurreko apartatuetan xedatutako betebeharrak bete ditzan.

1.5.- Una vez calificada la documentación, la Mesa determinará el adecuado cumplimiento de los requisitos legalmente establecidos para contratar con la Administración o, en caso contrario, determinará la exclusión del licitador del procedimiento y elevará al órgano de contratación propuesta de adjudicación a favor del licitador siguiente, por el orden en que hubiesen quedado clasificadas las ofertas, en cuyo caso se le concederá un plazo de DIEZ (10) días hábiles para cumplimentar las obligaciones dispuestas en los apartados anteriores.

## ***2.- Esleipena:***

## ***2.- La Adjudicación:***

1.- Kontratazio-organoak, Kontu-hartzailetzaren gastu-konpromisoa fiskalizatu ondoren, eta dokumentazioa jaso eta hurrengo BOST (5) egun baliodunen barruan, eskaintzarik onena aurkeztu duen lehiatzaileari esleitzeko ebazpen arrazoitua eskainiko du. Esleipenak zehaztu eta kontratuaren behin betiko xehetasunak finkatuko ditu.

Esleipena gehienez ere BI (2) hilabeteko epean xedatu beharko da, "3". artxibo elektronikoa ireki zenetik kontatuta.

Aurreko apartatuan adierazitako epea beste HAMABOST (15) egun baliodunetan zabalduko da baldin eta audientzia eman beharra badago neurriz kanpokotzat edo anormaltzat jo daitekeen proposamen bat aurkeztu duen lehiatzaileari.

Esleipena epe horretan xedatzen ez bada, lizitatzaileak eskubidea izango du bere proposamena erretiratzeko eta jarritako bermea itzul diezaioten.

2.- 2. Esleipena arrazoitua izango da, lizitatzaile guztiei jakinaraziko zaie, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da HAMABOST (15) eguneko epean.

Jakinarazpena bitarteko elektronikoen bidez egingo da, SPKLko D.A.15ean ezarritakoarekin bat etorriz.

3.- Kontratuaren esleipena jakinarazi eta helegiteak jartzeko epeak igaro ondoren horrelakorik jarri gabe, proposamenekin batera aurkeztutako agiriak interesatuen esku geratuko dira. Esleipena jakinarazi eta hurrengo HIRU (3) hilabeteetan, Udalak ez du hura zaindu beharrik izango, behin-behineko bermea justifikatzen duten agiriak izan ezik; zeintzuk, hala denenan, interesdunei emateko gordeko baitira.

1.- El órgano de contratación, previa fiscalización del compromiso de gasto por la Intervención, y dentro de los CINCO (5) días habiles siguientes a la recepción de la documentación, dictará resolución motivada adjudicando el contrato al licitador que haya presentado la mejor oferta. La adjudicación concretará y fijará los términos definitivos del contrato.

La adjudicación deberá recaer en plazo máximo de DOS (2) meses a contar desde la apertura del archivo electrónico "3".

El plazo indicado en el apartado anterior se ampliará en QUINCE (15) días hábiles cuando sea necesario darse audiencia al licitador que haya presentado una proposición que pueda ser considerada desproporcionada o anormal.

De no dictarse la adjudicación en dicho plazo el licitador tiene derecho a retirar su proposición y a que se le devuelva la garantía depositada.

2.- La adjudicación será motivada, se notificará a todos los licitadores y se publicará en el perfil de contratante en el plazo de QUINCE (15) días.

La notificación se realizará por medios electrónicos de conformidad con lo establecido en la D.A.15ª de la LCSP.

3.- Notificada la adjudicación del contrato y transcurridos los plazos para la interposición de recursos sin que se hayan interpuesto, la documentación que acompaña a las proposiciones quedará a disposición de los interesados. Si éstos no retiran su documentación en los TRES (3) meses siguientes a la fecha en que se les notifique la adjudicación, el Ayuntamiento no estará obligado a seguirla custodiando, a excepción, en su caso, de los documentos justificativos de la garantía provisional, que se conservarán para su entrega a los interesados.

4.- Kontratazio-organoak betegabetzat jo dezake lehiaketa, hala egokituz gero, Kontrataziomahaiak hala proposatuta, baldin eta baldintza-agirian ageri diren irizpideekin bat etorriz eskaintza edo proposamen onargarririk ez balego.

4.- El Órgano de Contratación podrá declarar desierta la licitación, en su caso, a propuesta de la Mesa de Contratación, cuando no exista ninguna oferta o proposición que sea admisible de acuerdo con los criterios que figuran en el pliego.

5.- Kontratazio-organoak esleipen-prozedurari uko egitea edo kontratua ez esleitzea edo ez egitea erabaki dezake, betiere kontratua formalizatu aurretik eta SPKLren 152. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Lehiatzaileei jakinarazten zaienean lehiaketak eragin dizkien gastuen konpentsazioa adieraziko zaie, aldez aurretik audientzia emanda eta haiek justifikatuta, eta gehienez ere lehiaketaren oinarrizko aurrekontua (508,75 €) baino milako 2,5(e)raino, inolako kalte-ordain gehigarririk jasotzeko eskubiderik gabe.

5.- El Órgano de Contratación podrá desistir del procedimiento de adjudicación o decidir no adjudicar o celebrar el contrato, siempre antes de la formalización del contrato y de acuerdo con lo previsto en el artículo 152 de la LCSP.

En la notificación a los licitadores se indicará la compensación por los gastos que la licitación les haya podido ocasionar, previa audiencia y justificación de aquellos, y hasta un máximo del 2,5 por mil del presupuesto base de licitación (508,75 €), sin que proceda indemnización adicional alguna.

**25.- KONTRATUA GAUZATZEA ETA FORMALIZATZEA.**

1.- Kontratua formalizatzearekin batera gauzatuko da.

Kontratua administrazio-agiri batean gauzatu beharko da HAMABOST (15) baliodunеko epean, esleipena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, eta lehiaketaren baldintzei zehaztasunez egokituko zaie eta, gainera, eskritura publikoan formalizatu daiteke, esleipendunak horrela eskatzen badu, hori onartzeak berekin dituen gastuak bere kontura izanik. Kasu honetan, esleipendunak aipatutako agiriaren kopia legezkotu bat eta kopia arrunt bat eman beharko dio Udalari, hura formalizatzen denetik hilabete BATEKO epean.

**25.- PERFECCIÓN Y FORMALIZACIÓN DEL CONTRATO.**

1.- El contrato se perfeccionará con su formalización.

El contrato deberá formalizarse en documento administrativo en el plazo de QUINCE (15) días hábiles, a contar desde el siguiente al de la notificación de la adjudicación, y se ajustará con exactitud a las condiciones de la licitación y además podrá formalizarse en escritura pública si así lo solicita el adjudicatario, corriendo a su cargo los gastos derivados de su otorgamiento. En este caso, el adjudicatario deberá entregar al Ayuntamiento una copia legitimada y una simple del citado documento en el plazo máximo de UN mes desde su formalización.

Kontratuak, kontratazio-arloko errekurtso berezia jaso dezakeenez, ezingo da formalizatu esleipenaren jakinarazpena lehiatzaileei igortzen zaienetik, edo esleipen-ekintzaren esekipena altxatzeko ebazpena erabakitzen denetik, HAMABOST (15) egun baliodun igaro baino lehen. Epe hori igaro ondoren, kontratazio-organoen mendeko zerbitzuek esleipendunari eskatuko diote kontratua formalizatu dezala, BOST (5) egunetik gorakoa izango ez den epe batez, eskakizun hori jaso duen egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Por ser el contrato susceptible de recurso especial en materia de contratación, la formalización no podrá efectuarse antes de que transcurran los QUINCE (15) días hábiles desde que se remita la notificación de la adjudicación a los licitadores o desde que se dicte resolución con el levantamiento de la suspensión del acto de adjudicación. Transcurrido este plazo, los servicios dependientes del órgano de contratación requerirán al adjudicatario para que formalice el contrato en plazo no superior a CINCO (5) días, contados desde el siguiente a aquel en que hubiera recibido el requerimiento.

2.- Behin kontratua formalizatuta, Udalaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

2.- Formalizado el contrato, será publicado en el perfil de contratante del Ayuntamiento.

3.- SPKLko 153.4. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik ez bada kontratua gauzatu adierazitako epearen barruan, lehiaketaren oinarrizko aurrekontuaren % 3, BEZ kanpo, (5.550,00 €) eskatuko zaio zigor gisa, eta behin-betiko bermearen aurka gauzatuko da lehenik, horrelakorik jarri badu eta kontratatzeko debekuei buruzko SPKLko 71.2.b). artikuluan ezarritakoaren kaltetan izan gabe.

3.-De conformidad con lo establecido en el artículo 153.4 de la LCSP, cuando por causas imputables al adjudicatario no se hubiese formalizado el contrato dentro del plazo indicado, se le exigirá el importe del 3% del presupuesto base de licitación, IVA excluido, (5.550,00 €) en concepto de penalidad, que se hará efectivo en primer lugar contra la garantía definitiva, si la hubiera constituido y sin perjuicio de lo establecido en el artículo 71.2.b) de la LCSP, relativo a las prohibiciones de contratar.

Kasu horretan, kontratua hurrengo lizitatzaileari esleituko zaio, eskaintzen sailkapen hurrenkerari jarraituz, aurreko baldintzak betetzearen inguruko egiaztagiriak aurkeztu ondoren, lehen aipatutako epeetan.

En tal caso, el contrato se adjudicará al siguiente licitador por el orden en que hubieran quedado clasificadas las ofertas, previa presentación de la documentación acreditativa del cumplimiento de los requisitos previos, en los plazos antes señalados.

# III. TITULUA KONTRATUA GAUZATZEA.

# TÍTULO III. EJECUCIÓN DEL CONTRATO.

## I.- KAPITULUA. ESLEIPENDUNAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.

## CAPÍTULO I.- DERECHOS Y OBLIGACIONES DEL ADJUDICATARIO.

### ***LEHEN ATALA: ESLEIPENDUNARI ORDAINTZEA***

### ***SECCIÓN PRIMERA: LOS ABONOS AL ADJUDICATARIO***

**26.- PREZIOA PAGATZEA.**

Esleipendunak eskubidea du, onartutako kontratuarekin, onesten diren kontratu-aldaketekin eta udalak emandako jarraibideekin bat etorriz, benetan eskaintzen dituen prestazioak hitzartutako prezioen arabera ordainduak izateko, eta ordaintzeko modua eta horien maiztasuna baldintza-agiri honen I Eranskinaren A.I.20 apartatuan zehaztutakoak izango dira.

**26.- PAGO DEL PRECIO**

El adjudicatario tiene derecho al abono, con arreglo a los precios convenidos, de las prestaciones que realmente ejecute con sujeción al contrato otorgado, a sus modificaciones aprobadas y a las instrucciones dadas por el ayuntamiento siendo la forma de pago y su periodicidad las especificadas en el apartado A.I.20 del Anexo I de este Pliego.

***BIGARREN ATALA: ESLEIPENDUNARI EGITEN ZAIZKION ESKAKIZUNAK***

**27.- ESLEIPENDUNARI ESKATU BEHARREKO BETEBEHARRAK.**

Kontratua haren klausuletara lotuz eta haren interpretaziorako Udalak esleipendunari ematen dizkion jarraibideekin bat etorriz beteko da.

1.- Esleipendunaren betebehar orokorrak ondoko hauek izango dira:

● Kontratua betetzeko enpresak egin behar dituen gastu guztiak bere gain hartzea, hala nola gastu orokorrak, finantzakoak, aseguruenak, garraio eta lekualdaketenak, materialak, instalazioak, beren ardurapeko langileen ordainsariak, egiaztapen eta entseguenak, tasak eta era guztietako zergak, BEZ eta kontratua indarrean dagoen bitartean hura betetzeak eragin dezakeen beste edozein, eta eskaintzaren barruan sartutzat joko dira.

● Bere izenean kontratuaren xedea gauzatzeko beharrezkoak diren lizentzia edo baimen administratibo guztiak lortzea.

● Kontratua behar bezala garatzeko eta betetzeko beharrezkotzat jotzen diren lanak ematea, ordainketa osagarrirako eskubiderik gabe, hala nola lan-bileretara edo informazio-bileretara joatea. Betebehar hori berme-epea amaitu arte mantenduko da.

***SECCIÓN SEGUNDA: EXIGENCIAS AL ADJUDICATARIO.***

**27.- OBLIGACIONES EXIGIBLES AL ADJUDICATARIO.**

El contrato se ejecutará con sujeción a las cláusulas del mismo y de acuerdo con las instrucciones que para su interpretación diera al adjudicatario el Ayuntamiento.

1.- Serán obligaciones generales del adjudicatario las siguientes:

● Asunción de todos los gastos que la empresa deba realizar para el cumplimiento del contrato, como son los generales, financieros, de seguros, transportes y desplazamientos, materiales, instalaciones, honorarios del personal a su cargo, de comprobación y ensayo, tasas y toda clase de tributos, el IVA y cualesquiera otros que pudieran derivarse de la ejecución del contrato durante la vigencia del mismo y se entenderán englobados en la oferta.

● La obtención a su nombre de cuantas licencias o autorizaciones administrativas sean precisas para la ejecución del objeto del contrato.

● Prestación, sin derecho de pago suplementario, los trabajos que se estimen necesarios para el correcto desarrollo y cumplimiento del contrato, tales como asistencia a reuniones de trabajo o informativas. Esta obligación se mantendrá hasta la finalización del plazo de garantía.

2.- Esleipendunak bete beharreko beste betebehar espezifiko batzuk baldintza-orri honetako I. eranskineko A.I.21 atalean zehaztutakoak izango dira, kasu bada.

2.- Otras obligaciones específicas a cumplir por el adjudicatario serán aquellas que se determinen, en su caso, en el apartado A.I.21 del Anexo I de este Pliego.

## ***HIRUGARREN ATALA: LAN, GIZARTE ETA GARDENTASUN ARLOKO XEDAPENAK***

## ***SECCIÓN TERCERA: DISPOSICIONES LABORALES, SOCIALES Y DE TRANSPARENCIA***

Atal honetan jasotako konpromisoek funtsezko kontratu-obligazioen izaera dute baldintza-orri hauetako 42. Klausulan eta SPKLren 211.1.f) artikuluan aurreikusitako ondorioei begira, esleipendunak horiek urratzen dituen kasuan.

Los compromisos recogidos en esta sección tienen el carácter de obligaciones contractuales esenciales a los efectos previstos en la Cláusula 42, de este Pliego y en artículo 211.1.f) de la LCSP, para el caso de que se incumplan por el adjudicatario.

### 28.- LAN, GIZARTE, GARDENTASUN ETA EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNAREN ARLOKO BETEBEHARRAK.

*A. Lan eta gizarte arloko betebeharrak*

1.- Esleipenduna behartuta dago lan eta gizarte-segurantzaren alorrean indarrean dagoen araudia betetzera. Halaber, nahitaez bete beharko ditu desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta horiek gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onesten duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, emakumeen eta gizonen benetako berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legea eta urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuak onetsitako Prebentzio Zerbitzuen Araudia, baita kontratua gauzatu bitartean argitaratzen diren arauak ere.

2.- Esleipendunak hiru hilean behin aurkeztu beharko dizkio Udalari fakturatutako lanak egitearekin zerikusi zuzena duten langileen soldatak, PFEZaren atxikipena eta Gizarte Segurantzaren kuotak ordaindu izana justifikatzen duten agiriak.

### 28.- OBLIGACIONES LABORALES, SOCIALES, DE TRANSPARENCIA Y EN MATERIA DE IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES.

*A. Obligaciones laborales y sociales*

1.- El adjudicatario está obligado al cumplimiento de la normativa vigente en materia laboral y de seguridad social. Asimismo, está obligado al cumplimiento del Real Decreto Legislativo 1/2013, de 29 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley General de derechos de las personas con discapacidad y de su inclusión social, de la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres, de la Ley 31/1995, de 8 de noviembre, sobre Prevención de Riesgos Laborales, y del Reglamento de los Servicios de Prevención, aprobado por Real Decreto 39/1997, de 17 de enero, así como de las normas que se promulguen durante la ejecución del contrato.

2.- El adjudicatario trimestralmente deberá presentar al Ayuntamiento los documentos justificativos correspondientes del pago de las cuotas a la Seguridad Social, retención del IRPF y salarios de los trabajadores directamente relacionados con la ejecución de los trabajos objeto de facturación.

3.- Esleipenduna behartuta dago kontratua gauzatzen den bitarte guztian berak adierazitako aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan finkatutako arauak eta baldintzak betetzera, betiere haren aplikazioa legeriaren araberakoa bada.

3.- El adjudicatario está obligado a cumplir durante todo el periodo de ejecución del contrato las normas y condiciones fijadas en el convenio colectivo de aplicación, de aplicación por él indicado, siempre y cuando la aplicación de este se ajuste a la legalidad.

4.- Nolanahi ere, kontratua gauzatzearekin zuzenean lotutako langile guztientzat aplikatzekoak izango diren soldata-oinarriak hitzarmen kolektibo horretan jasotakoak izango dira, inolako bereizketarik egin gabe plantillako langileen, ebentualen edo aldi baterakoen artean, enpresa azpikontratatuetako langileekin edo beste edozein eratako erlazioen kasuan. Lehiaketaren oinarrizko prezioa kalkulatzerakoan, kontuan izan da, besteak beste, betebehar hori.

4.- En todo caso, las bases salariales de aplicación para todos los trabajadores adscritos directamente a la ejecución del contrato, sin distingo alguno entre trabajadores de plantilla, eventuales o temporales, trabajadores de empresas subcontratadas, o cualquier otro tipo de relación, será la contemplada en ese convenio colectivo. El tipo de licitación se ha calculado teniendo en cuenta, entre otras cuestiones, esta obligación.

5.- Esleipenduna laneko ekipoa egonkorra izan dadin saiatuko da, eta, haren osaeran aldaketarik gertatzekotan, puntuala eta arrazoi justifikatuengatik izan dadin, kontratua gauzatzean haren funtzionamendu ona ez gorabeheratzearren, betiere Udalari horren berri emanez.

5.- El adjudicatario procurará que exista estabilidad en el equipo de trabajo, y que las variaciones en su composición sean puntuales y obedezcan a razones justificadas, en orden a no alterar el buen funcionamiento de la ejecución del contrato, informando en todo momento al Ayuntamiento.

6.- Greba edo ugazaben itxiera gertatzen bada, kontratistak berehala jakinarazi beharko dio Udalari horren hasieraren berri, eta prestazioa egokiro emateko behar diren bitarteko guztiak jarriko ditu Udalaren esku. Prestazioa mantentzeagatik sortzen diren gastuak enpresa esleipendunaren kontura izango dira.

6.- En caso de huelga o cierre patronal, el Contratista habrá de comunicar inmediatamente al Ayuntamiento la notificación del inicio del mismo y pondrá a disposición del Ayuntamiento cuantos medios sean precisos para ejecutar adecuadamente la prestación. Los gastos que se originen por mantener dicha prestación serán de cuenta de la empresa adjudicataria.

7.- Ez da lan-harremanik egongo kontratua burutzeko xedatzen diren langileen eta Udalaren artean, eta beraz, enpresa esleipendunaren zuzendaritza eta antolakuntza-boterearen mende geratuko da hura berariaz legez ezarritako eremu eta maila guztietan, eta horrenbestez, kasu honetan aplikagarri diren lege-xedapen guztiak betetzeko erantzukizuna eta obligazioa harena izango da bakar-bakarrik, bereziki, kontratazioaren, Gizarte Segurantzaren, laneko arriskuen prebentzioaren eta zergen alorrean, eta horren ondorioz, langile horiek ez dute zuzenbide nahiz lan arloko inolako loturarik izango Udalarekin; hori guztia, legez edo kontratuz hari dagozkion Kontrol eta Ikuskaritza ahalmenen kontra joan gabe.

7.- No existirá vinculación laboral alguna entre el personal que se destine a la ejecución del contrato y el Ayuntamiento, por cuanto aquél queda expresamente sometido al poder direccional y de organización de la empresa adjudicataria en todo ámbito y orden legalmente establecido y siendo, por tanto, ésta la única responsable y obligada al cumplimiento de cuantas disposiciones legales resulten aplicables al caso, en especial en materia de contratación, Seguridad Social, prevención de riesgos laborales y tributaria, por cuanto dicho personal en ningún caso tendrá vinculación jurídico-laboral con el Ayuntamiento, y ello con independencia de las facultades de Control e Inspección que legal y/o contractualmente correspondan al mismo.

8.- Entitate kontratistako pertsonalak entitatearekin dituen erlazio sindikalak, era berean, haien artean bakarrik bideratuko dira, Administrazioak inola esku hartu gabe.

8.- Las relaciones sindicales del personal de la entidad contratista con ésta se sustanciarán igual y exclusivamente entre ellos, sin que la Administración intervenga en modo alguno.

9.- Esleipendunak bereziki zainduko du ezen kontratua gauzatzera adskribatutako langileek beren jarduera beren funtzioen muga gainditu gabe egin dezaten, kontratuaren xedeko baldintza-agirietan zehaztutako jarduerari dagokionez.

9.- El adjudicatario velará especialmente por que los trabajadores adscritos a la ejecución del contrato desarrollen su actividad sin extralimitarse en las funciones desempeñadas respecto de la actividad delimitada en los pliegos como objeto del contrato.

10.- Enpresa kontratistak klausula honen arabera bere gain hartutako betebeharrak ez betetzearen ondorioz, erakunde kontratatzailea kondenatzen badute hartatik eratorritako ondorio ekonomikoak bere gain hartzera, betebehar horiek kontratistari jasanaraziko zaizkio, eta, ondorio horietarako, administrazio kontratatzaileak beretzat gordeko du ordaindutako zenbatekoak erabat berreskuratu arte egokiak eta komenigarriak diren edozein ekintza administratibo edo judizial.

10.- Si como consecuencia del incumplimiento por la empresa contratista de las obligaciones asumidas en virtud de esta cláusula, la entidad contratante fuera condenada a asumir las consecuencias económicas que de aquél se deriven, se repercutirán las mismas en la contratista, a cuyos efectos la Administración contratante se reserva el ejercicio de cualesquiera acciones, administrativas o judiciales, que sean adecuadas y convenientes hasta la total recuperación de las cantidades satisfechas.

*B. Laneko segurtasun eta osasun esparruko betebeharrak*

11.- Enpresa kontratistak bete beharko ditu laneko segurtasun eta arriskuen prebentzioko esparruan indarrean dauden xedapenak, baita hitzarmen kolektibo aplikagarritik eratorritakoak ere.

*B. Obligaciones en materia de seguridad y salud en el trabajo*

11.- La empresa contratista deberá cumplir con las disposiciones vigentes en materia de seguridad y prevención de riesgos laborales en el trabajo, así como las derivadas del convenio colectivo aplicable.

*C. Gardentasunaren gaineko betebeharrak*

12.- Gardentasunari, informazioa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 4. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, kontratuaren esleipenduna behartuta dago aipatutako arau horretan, baita udal eremuan xedatzen diren arauetan ere aurreikusitako obligazioak betetzeko beharrezkoa den informazio guztia Udalari ematera, hark aldez aurretik eskatzen dionean.

13.- Lehiatzaileak gardentasun instituzionala eman beharko die lehiaketako, esleipeneko eta exekuzioko prozesutik eratorritako datu guztiei, hura formalizatu arte.

*D. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko betebeharrak.*

14.- Enpresa esleipendunak, kontratua gauzatzean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzeko neurriak ezarri beharko ditu enplegua lortzeari, sailkapen pertsonalari, mailaz igotzeari, iraunkortasunari, prestakuntzari, ordainsariei, laneko kalitateari eta egonkortasunari, lanaldiaren iraupenari eta antolamenduari dagokienez, baita kontratua gauzatzeari atxikitako langileen bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa bateratzen laguntzen duten neurriak ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak ezartzen duenaren arabera.

15.- Enpresa esleipendunak hizkera ez-sexista erabili beharko du kontratua gauzatzean sortzen den dokumentazio, publizitate, irudi edo material osoan, eta saihestu egin beharko du emakumeak diskriminatzen dituen edozein irudi edo estereotipo sexista, eta sustatu egin beharko du berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzunkidetasunaren eta genero-rol eta -identitateen pluraltasunaren balioak dituen irudia..

*C. Obligaciones en materia de transparencia*

12.- De conformidad con lo establecido en el artículo 4 de la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información y buen gobierno, el adjudicatario del contrato está obligado a suministrar a el Ayuntamiento, previo requerimiento, toda la información necesaria para el cumplimiento de las obligaciones previstas en la citada norma así como en aquellas normas que se dicten en el ámbito municipal.

13.- El licitador deberá dar transparencia institucional a todos los datos derivados del proceso de licitación, adjudicación y ejecución hasta su formalización.

*D. Obligaciones en materia de igualdad de mujeres y hombres*

14.- La empresa adjudicataria, en la ejecución del contrato, deberá establecer medidas que garanticen la igualdad de mujeres y hombres en el acceso al empleo, clasificación personal, promoción, permanencia, formación, retribuciones, calidad y estabilidad laboral, duración y ordenación de la jornada, así como aquellas que favorezcan la conciliación de la vida personal, familiar y laboral del personal adscrito a la ejecución del contrato, conforme establece la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres.

15.- La empresa adjudicataria deberá utilizar un lenguaje no sexista en toda su documentación, publicidad, imagen o material que se genere con motivo de la ejecución del contrato, y deberá evitar cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipos sexistas y fomentar una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad y pluralidad de roles e identidades de género.

16.- Enpresa edo entitate esleipendunak bermatuko du sexu jazarpena eta sexu arrazoiek eragindako jazarpena prebenitzeko behar diren neurriak hartzen direla, hamar langiletik gora arituko diren kontratuetan.

16.- La empresa o entidad adjudicataria garantizará la adopción de medidas para prevenir el acoso sexual y el acoso por razón de sexo en el trabajo en aquellos contratos cuya ejecución requiera más de diez personas trabajadoras.

**29.- LAN-KONTRATUETAN SUBROGATZEKO BALDINTZEI BURUZKO INFORMAZIOA.**

Kontratuaren subrogazioaren kasuan, esleipendunak bete beharreko betebeharrak, baldintza-orri honetako I. eranskineko A.I.22 atalean zehaztutakoak izango dira.

**29.- INFORMACIÓN SOBRE LAS CONDICIONES DE SUBROGACIÓN EN CONTRATOS DE TRABAJO.**

Las obligaciones a cumplir por el adjudicatario en el caso de subrogación contractual serán aquellas que se determinen, en el apartado A.I.22 del Anexo I de este Pliego.

***LAUGARREN ATALA: KONFIDENTZIALTASUNA ETA IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA***

***SECCIÓN CUARTA: LA CONFIDENCIALIDAD Y PROTECCIÓN DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL***

Sekzio honetan jasotako konpromisoek funtsezko obligazio kontraktualen izaera dute baldintza-agiri honetako 42. eta 43. klausuletan aurreikusitako ondorioei begira, adjudikatarioak betetzen ez dituen kasurako.
Kontratua sinatzean, kasua hala bada, arlo horretan kontratistari dagozkion obligazioak jasotzen dituen dokumentu xehatu bat sinatuko da.

Los compromisos recogidos en esta sección tienen el carácter de obligaciones contractuales esenciales a los efectos previstos en las Cláusulas 42 y 43, de este Pliego, para el caso de que se incumplan por el adjudicatario.
A la firma del contrato se firmará, en su caso, documento detallado donde se recojan las obligaciones que en esta materia corresponden al contratista.

Nolanahi ere, sekzio honetan zerrendatutako obligazioak ez betetzeak Udalari edo hirugarren pertsonei eragin diezazkiekeen kalte-galeren erantzule izango da adjudikatarioa.

En todo caso, el adjudicatario será responsable de los daños y perjuicios que el incumplimiento de las obligaciones enumeradas en esta sección pudieran derivarse para el Ayuntamiento o para terceras personas.

**30.- KONFIDENTZIALTASUNAREN BETEBEHARRA.**

Konfidentzialtasunari dagokionez, SPKLko 133. artikuluan xedatutakoa izango da aplikatzekoa.

Udalak adjudikatarioari edo haren zerbitzuko enplegatuei emandako informazioa, datuak edo zehaztapenak, bai eta kontratua gauzatzean eskuratu dituztenak ere, konfidentzialtzat jo beharko dituzte, eta ezingo dira osorik edo partez argitaratu, kopiatu, erabili, laga edo hirugarrenei mailegatu. Betebehar hori BOST (5) urteko epean eutsiko zaio, prestazioa amaitzen denetik zenbatzen hasita.

**30.- DEBER DE CONFIDENCIALIDAD.**

En relación con la confidencialidad será de aplicación lo dispuesto en el artículo 133 de la LCSP.

La información, datos o especificaciones facilitadas por el Ayuntamiento al adjudicatario o al personal de su servicio, así como a los que hayan accedido en ejecución del contrato, deberán ser consideradas por éstos como confidenciales, no pudiendo ser objeto, total o parcial, de publicaciones, copia, utilización, cesión o préstamo a terceros. Este deber se mantendrá durante un plazo de CINCO (5) años desde la finalización de la prestación.

Adjudikatarioak eta haren zerbitzuko enplegatuek zerbitzuaren xede diren lanak egiteko entregatzen zaien informazioa, dokumentazioa edo datuak kontu handiz zaintzeko obligazio leiala hartzen dute, bai eta, horrekin batera, datu horiek beste pertsona batzuen eskura inolaz ere ez iristeko konpromisoa ere.

El adjudicatario y el personal a su servicio adquieren la obligación fiel de custodiar cuidadosamente la información, documentación o datos de los que se le haga entrega para la realización de los trabajos objeto del servicio, y con ello el compromiso de que los mismos no lleguen bajo ningún concepto a poder de distintas personas.

Adjudikatarioak eta haren zerbitzura dauden enplegatuek ezingo dituzte eskuratu kontratuaren xedearekin zuzenean zerikusirik ez duten informazioak, datuak eta dokumentuak.

El adjudicatario y el personal a su servicio no podrán acceder a aquellas informaciones, datos y documentos no directamente relacionados con el objeto del contrato.

Nolanahi ere, enpresa esleipenduna izango da betebehar hori ez betetzearen ondoriozko kalte-galeren erantzule.

En todo caso, la empresa adjudicataria será responsable de los daños y perjuicios que se deriven del incumplimiento de esta obligación.

**31.- IZAERA PERTSONALEKO DATUAK BABESTEA.**

**31.- PROTECCIÓN DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL.**

1.- Adjudikatzailea, izaera pertsonaleko datuen tratamenduaz den bezainbatean, estatu-mailako araudiaren eta Europar Batasuneko araudiaren mende egongo da, eta kasu guztietan errespetatu beharko du Datu Pertsonalen Babesari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak (294. BOE, 2018ko abenduaren 6koa) agintzen duena, bai eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (UE) 2016/679 Araudia ere, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, zeinaren bidez indargabetzen baita 95/46/CE direktiba (Datuen babeserako erregelamendu orokorra)), baita kontratua esleitzean datuen babesaren arloan indarrean dauden xedapenak edo indarrean egon daitezkeenak ere.

1.- El adjudicatario, en cuanto al tratamiento de datos de carácter personal estará sometida a la normativa estatal y de la Unión Europea y deberá respetar, en todo caso, las prescripciones de la Ley Orgánica 3/2018 de 5 de diciembre, BOE núm. 294 de 6 de diciembre de 2018 de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, así como el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y por el que se deroga la Directiva 95/46/CE (Reglamento general de protección de datos), así como las disposiciones que en materia de protección de datos se encuentren en vigor a la adjudicación del contrato o que puedan estarlo durante su vigencia.

2.- Kontratu hau gauzatzeak ez dakar datu pertsonaletarako sarbiderik; beraz, erakunde esleipenduneko langileek debekatuta izango dute Udalaren jabetzakoak diren horri buruko tratamendu informatikoak eta paperezkoak eskuratzea.

2.- La ejecución de este contrato no comporta un acceso a datos de carácter personal, por lo que los empleados de la entidad adjudicataria tendrán la prohibición de acceder a los tratamientos informáticos y en papel de esta indole, propiedad del Ayuntamiento.

3.- Adjudikatarioak bere enplegatuak prestatu eta informatu egin beharko ditu kontratua burutzeko lanak egiten dituztenean datuen babesaren arloan bete behar dituzten obligazioei buruz, bereziki sekretuaren betebeharretik eratorritakoei buruz, eta enpresa adjudikatarioak pertsonalki erantzungo du bere enplegatuek obligazio horiek ez betetzeagatik gerta daitezkeen lege-hausteen gainean.

3.- El adjudicatario deberá formar e informar a su personal de las obligaciones que en materia de protección de datos estén obligados a cumplir en el desarrollo de sus tareas para la prestación del contrato, en especial las derivadas del deber de secreto, respondiendo la empresa adjudicataria personalmente de las infracciones legales en que por incumplimiento de sus empleados se pudiera incurrir.

4.- Emandako datu pertsonalak, baldin eta pertsona fisikoak badira, edo pertsona juridiko baten ordezkariak badira, bai halaber zerbitzua edo obra egingo duten langileen curriculumeko datuak eta izaera laboraleko beste edozein, Udalak tratatuko ditu, tratamenduaren erantzule gisa.

4.- Los datos personales facilitados, para los casos en que se trate de persona/s física/s, o en el caso de ser representante/s de una persona jurídica, así como la curricular y otras de índole laboral, del/los trabajador/es que realizarán el servicio u obra, serán tratados por el Ayuntamiento en calidad de Responsable de Tratamiento.

Datuen tratamendua legitimatzen duen oinarri juridikoa baldintza-agiriaren adjudikazioa kudeatzea da, adjudikatarioari esleituz gero hura formalizatzeko eta gauzatzeko.

La base jurídica que legitima el tratamiento de los datos es la gestión de la adjudicación del pliego, para la formalización y ejecución del mismo en el supuesto de ser asignado al adjudicatario.

Informazioa biltzearen eta tratatzearen helburua da dena delako zerbitzua eta/edo obra hautatzeko edo adjudikatzeko prozesuan egokia den baloratzea, bai eta —adjudikatario gertatzen bada— Udalarekin kontratuzko erlazioa mantentzeko erabiltzea, eratorritako alderdi ekonomiko eta teknikoetan, bai halaber kontratatutako obrak, ondasunak eta/edo zerbitzuak kontrolatzea eta, kasua hala bada, haiekin lotutako gorabeherei buruzko informazioa bidaltzea.

La finalidad de la recogida y tratamiento de la información es la valoración de su idoneidad en el proceso de selección o adjudicación del servicio/s y/u obra/s de que se trate, así como – en el caso de que resulte adjudicatario – su utilización para mantener la relación contractual con el Ayuntamiento, en los aspectos económicos y técnicos derivados, así como el control de la/s obra/s, bien/es y/o servicio/s contratado/s y, en su caso, remisión de información sobre las incidencias relacionadas con aquéllos.

Jakinarazten da datu pertsonalak entitate publiko eskumendunei —estatukoak edo autonomikoak— laga edo komunikatu ahalko zaizkiela, legearen arabera aurreikusitako kasuetan. Era berean, kasuan kasuko administrazio publikoaren iragarki-tauletan eta egunkari edo aldizkari ofizialetan argitaratu ahalko dira. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamenduarekin bat etorriz (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra), datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko, ahazteko, aurka egiteko eta transferitzeko eskubideak baliatu ahalko dituzu, zure DNIarekin batera idatzi bat bidaliz udalari helbide honetara: Plaza de las Aulas, 7 - 12001 Castellón de la Plana.

Se informa que los datos personales podrán ser cedidos o comunicados a las entidades públicas – estatales o autonómicas – competentes y en los supuestos previstos, según Ley. Asimismo, podrán ser publicados en los tablones y diarios o boletines oficiales de la Administración Pública correspondientes.

De conformidad con el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 (Reglamento General de Protección de Datos), podrá ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación, olvido, oposición y portabilidad, respecto de sus datos personales, enviando un escrito acompañado de su DNI, dirigida a el Ayuntamiento.

3.- Datu pertsonalen babesari buruzko araudia betetzeari dagokionez, kontratuaren xedeak irauten duen bitartean lortzen den informazioaren gaineko sekretu-betebeharrak mugarik gabe iraungo du.

5.- El deber de secreto sobre la información que se obtenga durante la duración del objeto del contrato, por lo que respecta al cumplimiento de la normativa en materia de protección de datos personales se mantendrá por tiempo indefinido.

## ***BOSGARREN ATALA: ASEGURUAK ETA KALTEEN GAINEKO ERANTZUKIZUNAK***

## ***SECCIÓN QUINTA: SEGUROS Y RESPONSABILIDADES POR DAÑOS***

Atal honetan jasotako konpromisoek funtsezko kontratu-obligazioen izaera dute baldintza-orri hauetako 42. Klausulan eta SPKLren 211.1.f) artikuluan aurreikusitako ondorioei begira, esleipendunak horiek urratzen dituen kasuan.

Los compromisos recogidos en esta sección tienen el carácter de obligaciones contractuales esenciales a los efectos previstos en la Cláusula 42, de este Pliego y en artículo 211.1.f) de la LCSP, para el caso de que se incumplan por el adjudicatario.

**32.-ASEGURUAK.**

1.- Esleipendunak, prestazioa gauzatzeko, aseguru-poliza bat sinatzearen beharra, eta horren zenbatekoa hala badagokio, baldintza-orri honetako I. eranskineko A.I.23 atalean zehazten da.

**32.- SEGUROS.**

1.- La obligación de suscribir una poliza de seguros por el adjudicatario para la ejecución de la prestación, y su importe, se determina, en su caso, en el apartado A.I.23 del Anexo I de este Pliego.

2.- Eskatuez gero, kontratua gauzatzen den bitarte guztian indarrean egon beharko du. Kontratua gauzatzeko epea izenpetutako aseguruaren indarraldia baino luzeagoa denean, esleipendunak aseguru hori berritu edo luzatuko dela egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko du, kontratua gauzatzen den epealdi osoan bere indarraldiari eutsi diezaion.

2.- De exigirse, deberá mantener su vigencia durante todo el plazo de ejecución. En los casos en los que el plazo de ejecución sea superior a la vigencia del seguro suscrito, el adjudicatario deberá presentar la documentación que acredite la renovación o prorroga del seguro, de forma que mantenga su vigencia durante todo el plazo de ejecución del contrato.

3.- Enpresa edo pertsona esleipendunak kontratua sinatu aurretik formalizatuko ditu polizak, eta pagamenduan egunean edukiko ditu indarrean dauden bitartean. Udalari horien kopiak entregatu beharko dizkio, eta, ondoren, kontzeptu horregatik urtero ordaindutako primen erreziboen kopiak. Era berean, izenpetutako polizien hurrenez hurreneko berritzeak Udalari jakinarazi beharko dizkio, baita haietan gertatzen diren aldaketa guztiak ere.

3.- La empresa o persona adjudicataria formalizará las pólizas antes de la firma del contrato, y las mantendrá al corriente de pago durante su vigencia debiendo entregar al Ayuntamiento copia de estas y posteriormente duplicados de los recibos de pago de las primas satisfechas anualmente por el citado concepto. Igualmente deberá notificar al Ayuntamiento las sucesivas renovaciones de las pólizas suscritas, así como cuantas modificaciones experimenten.

4.- Edozein kasutan ere, baldin eta kalteen zenbatekoa polizetan aseguratutako kopurua baino handiagoa bada, diferentzia hori oso-osorik enpresa edo pertsona esleipendunak hartuko du bere gain.

4.- En cualquier caso, si el importe de los daños fuera superior a la cantidad asegurada en las pólizas, la diferencia será asumida exclusivamente por la empresa o persona adjudicataria.

**33.- KALTE-GALERENGATIK ESLEIPENDUNAK DUEN ERANTZUKIZUNA.**

**33.- RESPONSABILIDAD DEL ADJUDICATARIO POR DAÑOS Y PERJUICIOS.**

1.- Kalte-galeren kalte-ordainerako erregimena SPKLko 196. Artikuluan ezarritakoa izango da, eta horren arabera, kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren eragiketen ondorioz hirugarrengoei eragiten zaizkien zuzeneko nahiz zeharkako kalte-galera guztien erantzulea esleipenduna izango da. Eragindako kalte-galera horiek Udalak emandako agindu baten ondorio zuzena eta berehalakoa balira, hura izango litzateke erantzulea, legeak adierazitako mugen barruan.

1.- El régimen de indemnización de daños y perjuicios será el establecido en el artículo 196 de la LCSP, conforme al cual el adjudicatario, será responsable de todos los daños y perjuicios directos e indirectos que se causen a terceros, como consecuencia de las operaciones que requiera la ejecución del contrato. Si los daños y perjuicios ocasionados fueran consecuencia inmediata y directa de una orden dada por el Ayuntamiento, ésta será responsable dentro de los límites señalados en las leyes.

2.- Kontratuaren xede diren prestazioak desegoki bete izanaren ondorioz hirugarrengoei eragindako kalte-galeren kalte-ordaina emateko obligazioa betetzen ez badu esleipendunak, baldintza-orri hauetako 42. klausulan erabakitzen diren zigorrak ezartzeari ekingo dio Udalak.

2.- En caso de incumplimiento por parte del adjudicatario de la obligación de indemnizar los daños y perjuicios ocasionados a terceros como consecuencia de la incorrecta ejecución de las prestaciones objeto del contrato, el Ayuntamiento procederá a la imposición de las penalidades que se determinen en la claúsula 42 de este Pliego.

## II. KAPITULUA.- KONTRATUA LAGATZEA ETA AZPIKONTRATATZEA.

### 34.- KONTRATUA LAGATZEA.

1.- Kontratu honetatik eratortzen diren eskubide eta betebeharrak hirugarrengo bati laga ahal izango dizkio esleipendunak, baldin eta lagatzailearen ezaugarri tekniko edo pertsonalak ez badira kontratua esleitzeko arrazoi erabakigarri izan, SPKLko 214.2. artikuluan ezarritako kasuak eta betebeharrak betetzen badira, eta lagapen horrek merkatuko lehiakortasunaren benetako murrizpenik eragiten ez badu. Aipatutako artikulu horretako 2.b) apartatuan ezarritakoaren kaltetan izan gabe, ezingo zaio hirugarrengo bati lagapenik baimendu, esleipendunaren ezaugarrien funtsezko aldaketaren bat eragiten badu eta horiek kontratuaren funtsezko elementu badira.

Lagapen-hartzailea subrogatuta geratuko da lagatzaileari legozkiokeen eskubide eta betebehar guztietan.

2.- Sozietate esleipendunak parte hartzen duen enpresa-batasunetan, entitate xurgatzailearekin edo batasunaren ondorioz sortutakoarekin indarrean dagoen kontratuak bere horretan jarraituko du, eta bertatik ondorioztatzen diren eskubide eta betebehar guztietan subrogatuta geratuko da. Halaber, enpresak edo horien jarduera-adarrak banandu, ekarpenak egin edo eskualdatzen direnean, kontratua esleitzen zaion entitatearekin dagoen kontratuak bere horretan jarraituko du, eta bertatik ondorioztatzen diren eskubide eta betebeharretan subrogatuta geratuko da, betiere gaitasuna, kontratatzeko debekurik eza eta esleipena erabakitzean eskatutako kaudimena badu, edo eragiketa horien sozietate onuradunak eta, baldin badago, ondarearen eta banandutako enpresa edo adarren jatorri den sozietateak bere gain hartzen badu kontratua solidarioki gauzatzeko erantzukizuna.

## CAPÍTULO II.- CESIÓN DEL CONTRATO Y SUBCONTRATACIÓN.

### 34.- CESIÓN DEL CONTRATO.

1.- Los derechos y obligaciones dimanantes del presente contrato podrán ser cedidos por el adjudicatario a un tercero siempre que las cualidades técnicas o personales del cedente no hayan sido razón determinante de la adjudicación del contrato, se cumplan los supuestos y los requisitos establecidos en el artículo 214.2 de la LCSP, y de la cesión no resulte una restricción efectiva de la competencia en el mercado. Sin perjuicio de lo establecido en el apartado 2.b) del citado artículo, no podrá autorizarse la cesión a un tercero cuando ésta suponga una alteración sustancial de las características del adjudicatario si éstas constituyen un elemento esencial del contrato.

El cesionario quedará subrogado en todos los derechos y obligaciones que corresponderían al cedente

2.- En los casos de fusión de empresas en los que participe la sociedad adjudicataria, continuará el contrato vigente con la entidad absorbente o con la resultante de la fusión, que quedará subrogada en todos los derechos y obligaciones dimanantes del mismo. Igualmente, en los supuestos de escisión, aportación o transmisión de empresas o ramas de actividad de las mismas, continuará el contrato con la entidad a la que se atribuya el contrato, que quedará subrogada en los derechos y obligaciones dimanantes del mismo, siempre que reúna las condiciones de capacidad, ausencia de prohibición de contratar, y la solvencia exigida al acordarse la adjudicación o que las diversas sociedades beneficiarias de las mencionadas operaciones y, en caso de subsistir, la sociedad de la que provengan el patrimonio, empresas o ramas segregadas, se responsabilicen solidariamente con aquellas de la ejecución del contrato.

Ezin baldin bada subrogaziorik egin, kontratua esleitzen zaion entitateak beharrezko kaudimen-baldintzak betetzen ez dituelako, kontratua deuseztatu egingo da, eta ondorio guztiei begira, esleipendunaren erruz deuseztatutako kasutzat hartuko da.

Si no pudiese producirse la subrogación por no reunir la entidad a la que se atribuya el contrato las condiciones de solvencia necesarias, se resolverá el contrato, considerándose a todos los efectos como un supuesto de resolución por culpa del adjudicatario.

Aurreko ondorioei begira, enpresak kontratazio-organoari jakinarazi beharko dio zein xehetasun gertatu den.

A los efectos anteriores la empresa deberá comunicar al órgano de contratación la circunstancia que se hubiere producido.

**35.- AZPIKONTRATAZIOA.**

1.- Hirugarren batekin kontratuaren zati bat azpikontratatzeko aukera eta horren zenbatekoa, hala badagokio, baldintza-orri honetako I. eranskineko A.I.24 atalean zehazten dira.

2.- Aukera hori onartuz gero, lehiatzaileek beren eskaintzan adierazi beharko dute kontratuaren zein zati aurreikusia duten azpikontratatzea, eta horren zenbatekoa eta enpresaren izena edo ezaugarriak adierazi beharko dituzte, hori egiteko aginduko dien azpiesleipendunen kaudimen profesional edo teknikoaren baldintzei aipamen eginez. Kasu honetan, azpikontratu horiek ez badira eskaintzan adierazitakora egokitzen, ezingo dira gauzatu harik eta aurreko paragrafoan aipatutako jakinarazpenak egin eta egiaztapenak aurkezten direnetik hogei egun igarotzen diren arte, Udalak aldez aurretik berariazko baimenik eman ezean edo justifikatutako larrialdi-egoeraren bat egon ezean, non eta Udalak ez duen epe horretan bere aurkakotza jakinarazten.

Halaber, egin beharreko azpikontratua Udalari ezagutaraziko dion idazkiarekin batera, esleipendunak egiaztatu egin beharko du azpiesleipenduna ez dagoela SPKLko 71. artikuluarekin bat etorriz kontratatzeko debekuren batean. Azpiesleipendunaren erantzukizunezko adierazpen baten bitartez egin ahal izango da egiaztapen hori.

Esleipendun nagusiak kontratazio-organoari idatziz jakinarazi beharko dio informazio horrek kontratu nagusia gauzatzen den bitartean jasaten duen edozein aldaketa, eta halaber, azpiesleipendun berriei buruz dagoen beharrezko informazio guztia.

**35.- SUBCONTRATACIÓN.**

1.- La posibilidad de subcontratar con un tercero la realización parcial del contrato, y su importe, se determina, en su caso, en el apartado A.I.24 del Anexo I de este Pliego.

2.- De admitirse esta opción, los licitadores deberán indicar en su oferta la parte del contrato que tengan previsto subcontratar, señalando su importe, y el nombre o el perfil empresarial, definido por referencia a las condiciones de solvencia profesional o técnica, de los subadjudicatarios a los que vaya a encomendar su realización. En este caso, si los subcontratos no se ajustan a lo indicado en la oferta, no podrán celebrarse hasta que transcurran veinte días desde que efectúen la notificación y aportación de las justificaciones referidas en el párrafo anterior, salvo autorización expresa con anterioridad por el Ayuntamiento o situación de emergencia justificada, excepto si el Ayuntamiento notifica en ese plazo su oposición.

Asimismo, junto con el escrito mediante el que se dé conocimiento al Ayuntamiento del subcontrato a celebrar, el adjudicatario deberá acreditar que el subadjudicatario no se encuentra incurso en prohibición de contratar de acuerdo con el artículo 71 de la LCSP. Dicha acreditación podrá hacerse efectiva mediante declaración responsable del subadjudicatario.

El adjudicatario principal deberá notificar por escrito al órgano de contratación cualquier modificación que sufra esta información durante la ejecución del contrato principal, y toda la información necesaria sobre los nuevos subadjudicatarios.

3.- Esleipendunak langileen ordezkariei jakinarazi beharko die azpikontratazioa, lan arloko legeriarekin bat etorriz.

3.- El adjudicatario deberá informar a los representantes de los trabajadores de la subcontratación, de acuerdo con la legislación laboral.

4.- Kontratuaren parte diren exekuzio-baldintza berezi guztiak berdin-berdin eskatuko zaizkie hori gauzatzen parte hartzen duten azpikontratista guztiei.

4.- Todas las condiciones especiales de ejecución que formen parte del contrato serán exigidas igualmente a todos los subcontratistas que participen de la ejecución del mismo

5.- Nolanahi ere, azpiadjudikatarioak adjudikatario nagusiaren aurrean bakarrik geratuko dira obligatuak, eta hark, horrenbestez, Udalaren aurrean kontratua gauzatzeko erantzukizun osoa hartuko du bere gain, hertsiki betez klausula administratibo partikularren agirian eta kontratuaren terminoetan xedatutakoa, ingurumenaren, gizartearen edo lanaren alorrean SPKLko 201. artikuluak aipatzen dituen obligazioak ere betez, bai halaber Estatuko eta Europar Batasuneko araudiaren mende egoteari buruz 202.1 artikuluaren 1. ataleko azken paragrafoan aipatzen den obligazioa.

5.- En todo caso, los subadjudicatarios quedarán obligados sólo ante el adjudicatario principal que asumirá, por tanto, la total responsabilidad de la ejecución del contrato frente a el Ayuntamiento, con arreglo estricto a los pliegos de cláusulas administrativas particulares, y a los términos del contrato, incluido el cumplimiento de las obligaciones en materia medioambiental, social o laboral a que se refiere el artículo 201 de la LCSP, así como de la obligación a que hace referencia el último párrafo del apartado 1 del artículo 202.1 referida al sometimiento a la normativa nacional y de la Unión Europea en materia de protección de datos.

6.- Azpiesleipendunek ez dute zuzeneko ekintzarik izango Udal kontratatzailearen aurrean esleipendunak haiekin bere gain hartutako obligazioengatik, kontratu nagusia eta azpikontratuak gauzatzearen ondorioz.

6.- Los subadjudicatarios no tendrán acción directa frente al Ayuntamiento contratante por las obligaciones contraídas con ellos por el adjudicatario como consecuencia de la ejecución del contrato principal y de los subcontratos.

7.- Halaber, eta azpiesleipendunei eta hornitzaileei egin beharreko ordainketei dagokienez, esleipenduna behartuta dago SPKLko 216 eta 217. artikuluetan ezarritako baldintzak eta betebeharrak betetzera.

7.- Asimismo, y en cuanto a los pagos a subadjudicatarios y suministradores, el adjudicatario quedará obligado al cumplimiento de los requisitos y obligaciones establecidos en los artículos 216 y 217 de la LCSP.

D.A.51an xedatutakoarekin bat etorriz, arestian aipatutako artikuluetan aurreikusitakoaren kontra joan gabe, eta SPKLko 215. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badira, kontratazio-organoak, esleipendunari aurrez entzunda, ordainketa zuzenak egin ahal izango dizkie azpiesleipendunei, haiek eskatuta, esleipendunak azpikontratistarekin dituen kontratu-betebeharrak modu sinesgarrian urratu dituenean.

De conformidad con lo dispuesto en la D.A.51ª, sin perjuicio de lo previsto en los artículos antes referidos, y siempre que se cumplan las condiciones establecidas en el artículo 215 de la LCSP, el órgano de contratación, previa audiencia al adjudicatario, podrá realizar pagos directos a los subadjudicatarios, a petición de éstos, cuando por parte del adjudicatario se hayan incumplido de manera fehaciente sus obligaciones contractuales para con el subcontratista.

Azpiesleipendunaren alde egindako ordainketak esleipendun nagusiaren kontura egindakotzat ulertuko dira, eta Udal kontratatzailearekin duen harremanari begira, obrako ziurtagirien konturako ordainketen izaera bera edukiko du.

Los pagos efectuados a favor del subadjudicatario se entenderán realizados por cuenta del adjudicatario principal, manteniendo en relación con el Ayuntamiento contratante la misma naturaleza de abonos a buena cuenta que la de las certificaciones de obra.

8.- Azpiesleipendunak aurkeztutako fakturari esleipendun nagusiak adostasunik eman ez izanak eragindako ordainketa-atzerapena inola ere ez zaio Udalari egotziko.

8.- En ningún caso será imputable a el Ayuntamiento el retraso en el pago derivado de la falta de conformidad del adjudicatario principal a la factura presentada por el subadjudicatario.

SPKLko 217.1. artikuluarekin bat etorriz, esleipendunak haiei ordainketak egin izanaren egiaztagiria bidali beharko dio kontratazio-organoari, hark hala eskatzen dionean, SPKLko 216. artikuluan eta merkataritza-eragiketetan berandutzaren aurkako neurriak finkatzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako ordainketa-epeen barruan, azken hori aplikatzekoa denean. Betebehar horiek kontratua gauzatzeko funtsezko baldintzen izaera edukiko dute.

De conformidad con el artículo 217.1 de la LCSP, el adjudicatario deberá remitir al órgano de contratación, cuando éste lo solicite, justificante del cumplimiento de los pagos a aquellos una vez terminada la prestación, dentro de los plazos de pago legalmente establecidos en el artículo 216 de la LCSP y en la Ley 3/2004 de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales, en lo que le sea de aplicación. Estas obligaciones tendrán la consideración de condiciones esenciales de ejecución del contrato.

9.- Baldintza eta betebehar hauek ez betetzeak, eta halaber, azpiesleipendunaren gaitasuna ez egiaztatzeak, edo azpikontratazioaren larrialdi-egoera erabakitzen duten edo premiazko egiten duten inguruabar erabakigarririk ez egoteak, hala egokituz gero, baldintza-orri hauen 42 klausulan aurreikusten diren zigorrak ezartzea ahalbidetuko du.

9.- El incumplimiento de estas condiciones y obligaciones, así como la falta de acreditación de la aptitud del subadjudicatario o de las circunstancias determinantes de la situación de emergencia o de las que hacen urgente la subcontratación, permitirá la imposición de las penalidades que, en su caso, se prevea en la claúsula 42 de este pliego.

## III. KAPITULUA.- KONTRATUA GAUZATZEA

## CAPÍTULO III. EJECUCIÓN DEL CONTRATO

### 36.- EXEKUZIO-BALDINTZA BEREZIAK.

Kontratu hau gauzatzeko eskatutako baldintza bereziak baldintza-orri hauen I Eranskineko A.I.25 apartatuan adierazita datoz.

Ezarritako baldintza berezi guztiek kontratuaren funtsezko betebeharren izaera edukiko dute, eta esleipendunak horiek betetzen ez baditu, baldintza-orri hauetako 42. klausulan aurreikusitakoarekin bat etorriz egoki diren zigorrak aplikatzea eragingo du.

### 36.- CONDICIONES ESPECIALES DE EJECUCIÓN.

Las condiciones especiales exigidas para la ejecución de este contrato se señalan en el apartado A.I.25 del Anexo I de este Pliego.

Todas las condiciones especiales establecidas tienen el carácter de obligaciones contractuales esenciales y su incumplimiento por parte del adjudicatario conllevará la aplicación de las penalidades que en su caso procedan según lo previsto en la clausula 42 de este Pliego.

Kontratuaren parte diren exekuzio-baldintza berezi guztiak horren exekuzioan parte hartzen duten azpi-kontratatu guzti-guztiei eskatuko zaizkie.

Todas las condiciones especiales de ejecución que formen parte del contrato serán exigidas igualmente a todos los subcontratados que participen en la ejecución del mismo.

**37.- ARRISKU ETA MENTURA.**

**37.- RIESGO Y VENTURA.**

Kontratuaren exekuzioa kontratistaren arrisku eta menturara egingo da, eta hark ez du kalte-ordainak jasotzeko eskubiderik izango gauzatzean gertatutako galeren, matxuren edo kalteen kausaz, ezinbesteko kasuetan izan ezik eta betiere berak zuhurtziarik gabe jokatu duelako ez bada, SPKLaren 197 eta 239. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

La ejecución del contrato se realizará a riesgo y ventura del contratista y éste no tendrá derecho a indemnizaciones por causa de pérdidas, averías o perjuicios ocasionados en su ejecución, salvo en los casos de fuerza mayor y siempre que no exista actuación imprudente por su parte, de conformidad con lo establecido en los artículos 197 y 239 de la LCSP.

**38.- KONTRATUA BETETZEA.**

**38.- CUMPLIMIENTO DEL CONTRATO.**

Kontratistak ezingo du inolako arrazoirengatik kontratuaren konplimendua eten, salbu eta legez ezarritako kasuetan eta, betiere, legez ezarritako eskakizunak betez.

Por ningún motivo podrá el contratista interrumpir el cumplimiento del contrato, salvo los casos y con sujeción a los requisitos legalmente previstos.

Esleipenduna behartuta dago kontratua ezarritako epean eta baldintzetan gauzatzera, baita epe partzialen barruan ere, baldin eta horrelakoak ezartzen badira elkarren segidan egiteko.

El adjudicatario esta obligado a ejecutar el contrato en el plazo y condiciones establecidos, así como de los plazos parciales si se señalasen para su ejecución sucesiva.

SPKLko 29.3. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, prestazioa gauzatzean adjudikatzailea berandutzen baldin bada, kontratazio-organoak exekuzio-epearen luzapen bat onartu ahal izango du, hala dagokionean egoki diren zigorrak ezarri daitezkeen arren, eta baldintza-orri hauetako 42. Klausulan aurreikusitakoa aplikatuko da horrelakoetan.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 29.3 de la LCSP, cuando se produzca demora en la ejecución de la prestación por parte del adjudicatario, el órgano de contratación podrá conceder una ampliación del plazo de ejecución, sin perjuicio de las penalidades que en su caso procedan, resultando aplicable lo previsto en la Claúsula 42 de este Pliego.

Esleipendunaren erantzukizuna izango da burutzen dituen lanen eta egindako prestazioen kalitate teknikoa, baita halaber kontratua gauzatzean izandako omisio, akats, metodo desegoki edo konklusio okerrengatik Udalari edo beste hirugarrengo batzuei eragiten zaizkien ondorioak ere. Adjudikatzailearen obligazioa izango da kontrataturiko lana betetzeak eskatzen dituen eragiketen ondorioz gertatzen diren kalte-galeren ordaina pagatzea.

Hautematen diren akatsak Administrazioaren agindu baten edo hark ezarritako baldintzen ondorio zuzena direnean, orduan bakarrik geratuko da erantzukizunetik salbuetsia.

El adjudicatario será responsable de la calidad técnica de los trabajos que desarrolle y de las prestaciones realizadas, así como de las consecuencias que se deduzcan para el Ayuntamiento o para terceros de las omisiones, errores, métodos inadecuados o conclusiones incorrectas en la ejecución del contrato. Será obligación del adjudicatario indemnizar los daños y perjuicios que se causen como consecuencia de las operaciones que requiera la ejecución del trabajo contratado.

Sólo quedará exento de responsabilidad cuando los vicios que se observen, sean consecuencia directa de una orden del Ayuntamiento o de las condiciones impuestas por ella.

Halaber, bere erantzukizun izango dira haren esku jarritako ondasunetan Udalari itzuli aurretik gertatutako galerak, matxurak edo kalteak.

También será responsable de las perdidas, averías o perjuicios causados en los bienes puestos a su disposición antes de su devolución al ayuntamiento.

**39.- LAN AKASTUNAK EDO GAIZKI EGINAK.**

**39.- TRABAJOS DEFECTUOSOS O MAL EJECUTADOS.**

1.- Harrera egiten den unera arte, esleipenduna kontratatutako prestazioak behar bezala egitearen eta horietan dauden akatsen erantzule izango da, eta ez du inolako salbuespenik edo eskubiderik emango Udaleko ordezkariek prestazioak egin bitartean aztertu edo onartu izana edo egiaztapen, balorazio edo ziurtapen partzialetan onartu izana.

1.- Hasta el momento en que se efectue la recepción, el adjudicatario responderá de la correcta realización de las prestaciones contratados y de los defectos que en ellos hubiera, sin que sea eximente ni dé derecho alguno la circunstancia de que los representantes del Ayuntamiento los hayan examinado o reconocido durante su elaboración o aceptado en comprobaciones, valoraciones o certificaciones parciales.

2.- Esleipendunak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratuan definitutako prestazioen exekuzioa partzialki bete gabe uzten badu, Udalak, kasuaren ezaugarriak kontuan izanik, kontratua amaiaraztea edo kasuaren arabera egoki diren zigorrak ezartzea erabaki ahal izango du, eta horrelakoetan, baldintza-orri hauetako 42. Klausulan aurreikusitakoa aplikatuko da.

2.- Cuando el adjudicatario, por causas imputables al mismo, hubiere incumplido parcialmente la ejecución de las prestaciones definidas en el contrato, el Ayuntamiento podrá optar, atendidas las circunstancias del caso, por su resolución o por la imposición de las penalidades que en su caso procedan, resultando aplicable lo previsto en la Claúsula 42 de este Pliego.

**40.- KONTRATUA ALDATZEA.**

**40.- MODIFICACIÓN DEL CONTRATO.**

1.- Interes publikoko arrazoiengatik aldatu ahal izango da kontratua, SPKLko 203tik 207ra doazen artikuluetan aurreikusitako kasu eta formetan, arau horren 191. artikuluan arautútako prozedurarekin bat etorriz.

Aldaketa horrek ezingo du inola ere hasierako kontratuaren izaera orokorra eraldatu. Dena den, eraldatu egin duela ulertuko da baldin eta eskuratuko diren obrak, hornidurak edo zerbitzuak beste batzuengatik ordezkatzen badira edo horrek kontratu mota aldatzen badu. Ez da ulertuko kontratuaren izaera orokorra aldatu denik baldin eta obrako, hornidurako edo zerbitzuko unitate jakin bat ordezkatzen bada.

2.- Bidezkoa izango da kontratua aldatzea, baldin eta baldintza-orri hauetako I Eranskineko A.I.26 apartatuan horrela aurreikusi bada.

Aldaketak, bakarkakoak edo pilatutakoak, ezingo dira izan kontratuaren hasierako prezioaren % 10 baino handiagoak, ez gorantz eta ez beherantz ere.

3.- Aurreko atalean aurreikusi gabeko aldaketak ere egin ahalko dira, baldin eta hurrengo kasu hauek gertatzen badira:

a) Hasieran kontratatutakoez gain beste obra, hornidura edo zerbitzu batzuk gehitzea beharrezkoa denean, betiere ondorengo bi baldintza hauek betetzen badira:

1.- Kontratista aldatzea ezinezkoa izatea, arrazoi ekonomikoak edo teknikoak direla eta, alegia, ezaugarri tekniko desberdinak dituzten obrak, zerbitzuak edo hornidurak eskuratzera behartuta egotea, desberdintasun horiek bateraezintasunak edo erabiltzeko edo mantentzeko neurriz kanpoko zailtasun teknikoak eragiten dituztelako; eta halaber, kontratista aldatzeak eragozpen garrantzitsuak edo kostuen funtsezko gehikuntza bat eragitea kontratazio-organoarentzat.

2. Kontratuaren aldaketak eragiten duen zenbateko-aldaketa, bera bakarrik edo erabakitako beste aldaketa batzuekin batera, hasierako prezioaren % 50etik gorakoa ez izatea, BEZ kanpo.

1.- El contrato podrá ser modificado por razones de interés público en los casos y en la forma prevista en los artículos 203 a 207 de la LCSP, y de acuerdo con el procedimiento regulado en el artículo 191 de dicha norma.

En ningún caso la modificación podrá alterar la naturaleza global del contrato inicial. En todo caso, se entenderá que se altera esta si se sustituyen las obras, los suministros o los servicios que se van a adquirir por otros diferentes o se modifica el tipo de contrato. No se entenderá que se altera la naturaleza global del contrato cuando se sustituya alguna unidad de obra, suministro o servicio puntual.

2.- Procederá la modificación del contrato cuando así se haya previsto en el apartado A.I.26 del Anexo I de este Pliego.

Las modificaciones previstas no podrán ser superiores, de manera individual o acumulada, al 10% del precio inicial del contrato tanto al alza como a la baja.

3.- También podrán realizarse modificaciones no previstas en el apartado anterior, cuando concurran los siguientes supuestos:

a) Cuando deviniera necesario añadir obras, suministros o servicios adicionales a los inicialmente contratados, siempre y cuando se den los dos requisitos siguientes:

1.º Que el cambio de contratista no fuera posible por razones de tipo económico o técnico, esto es que obligara a adquirir obras, servicios o suministros con características técnicas diferentes, cuando estas diferencias den lugar a incompatibilidades o a dificultades técnicas de uso o de mantenimiento que resulten desproporcionadas; y, asimismo, que el cambio de contratista generara inconvenientes significativos o un aumento sustancial de costes para el órgano de contratación.

2.º Que la modificación del contrato implique una alteración en su cuantía que no exceda, aislada o conjuntamente con otras modificaciones acordadas, del 50% de su precio inicial, IVA excluido.

b) Indarreko kontratua aldatu beharra kontratuaren lehiaketa egin zenean aurreikusterik ez zeuden eta gerora sortu diren arrazoiengatik denean, betiere aurreko apartatuko muga betetzen bada eta kontratuaren izaera orokorra aldatzen ez bada.

b) Cuando la necesidad de modificar el contrato vigente se derive de circunstancias sobrevenidas y que fueran imprevisibles en el momento en que tuvo lugar la licitación del contrato, siempre y cuando se cumpla el limite del apartado anterior y no se altere la naturaleza global del contrato.

c) Aldaketak funtsezkoak ez direnean. SPKLko 205.2.c) artikuluan jasotzen diren baldintzak bete behar dira horretarako.

c) Cuando las modificaciones no sean sustanciales. Debiendo para ello cumplir las condiciones que se recogen en el artículo 205.2.c) de la LCSP

Arestian aipatutako aldaketa-kasu horietan, kontratazio-organoak erabakitako aldaketak nahitaezkoak izango dira esleipendunentzat, horiek bakarrik edo beste batzuekin batera, kontratuaren hasierako prezioan % 10ko aldaketa bat dakartenean, eta SPKLko 153. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz gauzatu beharko da, eta aipatutako lege horren 207. eta 63. artikuluetan ezarritakoaren arabera argitaratu.

En los supuestos de modificación señalados anteriormente las modificaciones acordadas por el órgano de contratación serán obligatorias para los adjudicatarios cuando impliquen aislada o conjuntamente una alteración del precio inicial del contrato del 10%, debiendo formalizarse conforme a lo dispuesto en el artículo 153 de la LCSP y publicarse de acuerdo con lo establecido en los artículos 207 y 63 de la citada ley.

Aurreko apartatuan xedatutakoarekin bat etorriz, aldaketa hori kontratistarentzat nahitaezkoa ez denean, hark idatziz bere aldez aurreko adostasuna ematen badu bakarrik erabakiko da, eta horrela egiten ez badu, kontratua amaitutzat joko da

Cuando de acuerdo con lo dispuesto en el apartado anterior la modificación no resulte obligatoria para el contratista, la misma solo será acordada previa conformidad por escrito del mismo, resolviéndose el contrato, en caso contrario.

**41.- KONTRATUA ETETEA.**

Udalak, interes publikoko arrazoiengatik, kontratuaren exekuzioa etetea erabaki ahal izango du. Halaber, bidezkoa izango da kontratua amaitzea, SPKLko 198.5. artikuluan adierazitako xehetasuna betetzen bada. Kontratua etetearen ondorioei begira, arau horretako 208. artikuluan xedatutakoa beteko da, baita harekin bat datozen APKLAOeko arauek diotena ere.

SPKLko 208. artikuluarekin bat etorriz, Udalak kontratua etetea erabakitzen badu edo arestian aipatutako 198.5. artikuluan xedatutakoa aplikatzeagatik gertatzen bada hori, Udalak esleipendunari ordainduko dizkio hark benetan jasandako kalte eta galerak, aipatutako 208. artikuluan ezarritako arauekin bat etorriz.

**41.- SUSPENSIÓN DEL CONTRATO.**

El Ayuntamiento, por razones de interés público, podrá acordar la suspensión de la ejecución del contrato. Igualmente, procederá la suspensión del contrato si se diese la circunstancia señalada en el artículo 198.5 de la LCSP. A efectos de la suspensión del contrato se estará a lo dispuesto en el artículo 208 de dicha norma, así como en los preceptos concordantes del RGLCAP.

De conformidad con el artículo 208 de la LCSP, si el Ayuntamiento acordase la suspensión del contrato o aquella tuviere lugar por la aplicación de lo dispuesto en el artículo 198.5 antes referido, el Ayuntamiento abonará al adjudicatario los daños y perjuicios efectivamente sufridos por éste con sujeción a las reglas establecidas en el citado artículo 208.

**42.- ARAU-URRATZEAK ETA ZIGOR-ERREGIMENA**

1.- Ez-betetzetzat jotzen da kontratistak egiten duen halako ekintza edo omisio oro non berekin baitakar kontratuan, baldintza-orri hauetan eta Preskripzio Teknikoen Agirian nahiz oro har aplikakizun diren gainerako arauetan ezarritako betebeharrak urratzea.

Udalak, kontratuaren xede den prestazioa desegoki betetzen bada edo ezarritako epeak eta/edo konpromisoak edo exekuzio-baldintza bereziak betetzen ez badira, kontratua amaitzea erabaki ahal izango du, edo bestela, baldintza-orri hauetako I Eranskineko A.I.27 apartatuan finkatutako zigorrak ezarri.

Kontratua partzialki betetzen ez bada, desegoki betetzen bada edo betetzeko orduan berandutza gertatzen bada, zigorrik aurreikusten den kasuetan edo, aurreikusi arren, Administrazioari eragindako kalteak estaltzen ez dituen kasuetan, kontratistari kalte-galeren kalte-ordaina eskatuko zaio.

2.- Ustez ez-betetze bat gertatu delako espedientea tramitatzen denean, audientzia emango zaio kontratistari, alegazioak aurkeztu ahal izan ditzan BOST (5) laneguneko epearen barruan, eta kontratazio-organoak ebatziko du, aldez aurretik beharrezko txostenak eginda.

3.- Zigorren eta berandutzaren zenbatekoa fakturetatik edo ziurtagirietatik kenduko da eta, hala dagokionean, bermetik, aipatutako beste dokumentuetatik kentzerik ez dagoenean.

Bermearen gainean gauzatzen direnean, kontratistak birjarri edo handitu egin beharko du hura, gauzatzetik HAMABOST (15) egun naturaleko epean; bestela, kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da.

4.- Bermea galtzeak edo zigorren zenbatekoek ez dute salbuesten kontrata berandutzeak eragindako kalteengatik Udalak jasotzeko eskubidea izan dezakeen kalte-ordaina ordaindu behar izatetik

**42.- INCUMPLIMIENTOS Y REGIMEN DE PENALIDADES.**

1.- Se considera incumplimiento toda acción u omisión por parte del contratista que suponga la vulneración de las obligaciones establecidas en el contrato, en este pliego, en el de prescripciones Técnicas y demás normas de general aplicación.

El Ayuntamiento, en caso de cumplimiento defectuoso de la prestación objeto del contrato o para el caso de incumplimiento de los plazos y/o de los compromisos o condiciones especiales de ejecución establecidas, podrá optar por la resolución del contrato o por las penalidades que se determinan en el apartado A.I.27 del Anexo I al presente pliego.

En los supuestos de incumplimiento parcial o cumplimiento defectuoso o de demora en la ejecución en que no esté prevista penalidad o en que estándolo la misma no cubriera los daños causados a la Administración, ésta se exigirá al contratista la indemnización por daños y perjuicios.

2.- En la tramitación del expediente por presunto incumplimiento, se dará audiencia al contratista para que pueda formular alegaciones dentro de un plazo de CINCO (5) días hábiles y el órgano de contratación resolverá, previa emisión de los informes pertinentes.

3.- El importe de las penalidades y demora se deducirá de las de las facturas o certificaciones y, en su caso, de la garantía cuando no puedan deducirse de los mencionados documentos.

Cuando se hagan efectivas sobre la garantía, el contratista quedará obligado a reponer o ampliar la misma en el plazo de QUINCE (15) días naturales desde la ejecución, incurriendo, en caso contrario, en causa de resolución del contrato.

4.- La pérdida de la garantía o los importes de las penalidades no excluyen la indemnización por daños y perjuicios a que pueda tener derecho el Ayuntamiento, originado por la demora de la contrata.

## IV. KAPITULUA.- KONTRATUA SUNTSITZEA.

**_LEHEN ATALA: KONTRATUA DEUSEZTATZEA._**

**43.- KONTRATUA DEUSEZTATZEA.**

1.- SPKLko 211 eta 313. artikuluetan aipatutako deuseztatze-kausetakoren batengatik suntsituta geratu daiteke kontratua, baldintza-orri hauetan edo beste lege-xedapen batzuetan aurreikusitako beste kausa batzuk alde batera utzita.

Horretarako, kontratuko betebehar ez-funtsezkoak behin eta berriro ez betetzeak kontratuko edozein betebehar funtsezko ez betetzearen ondorio bera izango du.

2.- Aurreko apartatuetan jasotakoaz gain, hurrengoak dira Kontratua deuseztatzeko kausak:

* Administrazioarekin kontratatzeko eskakizunak gerora galtzea.

* Administrazioaren zuzendaritzarako eta ikuskatzaritzarako ahalmena oztopatzea.

* 7 klausulan jasotako baldintza bereziak urratzea.

* Eskainitako giza baliabideak edo bitarteko materialak kontratuaren exekuzioari atxikitzeko konpromisoa ez betetzea, 15.3. klausulan ezarritakoaren arabera.

* 28. klausulan lan, gizarte eta gardentasun alorrean ezarritako betebeharrak ez betetzea.

*Kontratuaren xedearekin loturik dauden eta kontratua betetzean ezagutzen dituen datuen edo aurrekarien inguruan, horiek publikoak edo nabarmenak ez direnean, kontratistak isiltasuna gordetzeko duen obligazioa ez betetzea, 30. eta 31. klausuletan ezarritakoarekin bat etorriz.

* Aseguruaren indarraldiari ez eustea exekuzio-epe osoan barrena, 32. klausulan ezarritakoarekin bat etorriz.

## CAPÍTULO IV.- EXTINCIÓN DEL CONTRATO.

**_SECCIÓN PRIMERA: RESOLUCIÓN DEL CONTRATO._**

**43.- RESOLUCIÓN DEL CONTRATO.**

1.- El contrato podrá extinguirse por alguna de las causas de resolución enunciadas en los arts. 211 y 313 de la LCSP, sin perjuicio de otras causas previstas en estos pliegos o en otras disposiciones legales y de las penalidades que, en su caso, se pudieran imponer, conforme a lo establecido en la cláusula 42.

A estos efectos, el incumplimiento reiterado de obligaciones contractuales no esenciales tendrá el mismo efecto que el incumplimiento de cualquier obligación contractual esencial.

2.- Además de las recogidas en los apartados anteriores son causas de Resolución del Contrato las siguientes:

* La pérdida sobrevenida de los requisitos para contratar con la Administración.

* La obstrucción a las facultades de dirección e inspección de la Administración.

* El incumplimiento de las condiciones especiales recogidas en la cláusula 7.

* El incumplimiento de la adscripción a la ejecución del contrato de medios personales o materiales ofertados, conforme a lo establecido en la cláusula 15.3.

* El incumplimiento de las obligaciones laborales, sociales y de transparencia establecidas en la cláusula 28.

* El incumplimiento de la obligación del contratista de guardar sigilo respecto de los datos o antecedentes que, no siendo públicos o notorios, estén relacionados con el objeto del contrato y de los que tenga conocimiento con ocasión del mismo, conforme a lo establecido en las cláusulas 30 y 31.

* No mantener la vigencia del Seguro durante todo el plazo de ejecución, conforme a lo establecido en la cláusula 32.

* Azpikontratazio alorrean ezarritako mugak ez betetzea, hala badagokio, 35. klausulan ezarritakoarekin bat etorriz.

* Hala badagokio, baldintza-agiri honen I. eranskineko A.I.25. atalean ezarritako baldintza bereziak ez betetzea..

SPKLko 211.2 artikuluarekin bat etorriz, kontratua deuseztatzeko arrazoi desberdinak dauden kasuetan, deuseztatze horrek ondorio ekonomiko desberdinak dituela, denboran lehentasunez agertu dena hartu beharko da kontuan.

3.- Kontratua deuseztatzea kontratazio-organoak erabakiko du, ofizioz edo kontratistak eskatuta, hala egokituz gero, APKEko 109. artikuluak arauz ezarritako forman tramitatutako prozeduraren bidez.

4.- Deuseztatzeko kausak aplikatzerakoan, SPKLko 212. artikuluan eta APKEko 110. artikuluan xedatutakoa beteko da, eta horren ondorioetarako, SPKLTBko 213. eta 313. artikuluetan xedatutakoa.

5.- Edozein kasutan ere, kontratua deuseztatzeak berekin ekarriko du bermea konfiskatzea eta, hala egokituz gero, Administrazioari kalte-ordaina ordaintzeko obligazioa, SPKLko 194. artikuluan ezarritako baldintzetan.

* El incumplimiento, en su caso, de las limitaciones establecidas en materia de subcontratación, conforme a lo establecido en la cláusula 35.

* El incumplimiento, en su caso, de las condiciones especiales recogidas en el apartado A.I.25 del Anexo I de este Pliego.

De conformidad con el artículo 211.2 de la LCSP, en los casos en que concurran diversas causas de resolución del contrato con diferentes efectos en cuanto a las consecuencias económicas de la extinción, deberá atenderse a la que haya aparecido con prioridad en el tiempo.

3.- La resolución del contrato se acordará por el órgano de contratación de oficio o a instancia del contratista, en su caso, mediante procedimiento tramitado en la forma reglamentariamente establecida por el artículo 109 del RCAP.

4.- Para la aplicación de las causas de resolución se estará a lo dispuesto en los artículos 212 LCSP y 110 del RCAP, y para sus efectos a lo dispuesto en los artículos 213 y 313 TRLCSP.

5.- En todo caso, la resolución del contrato conllevará la incautación de la garantía y, en su caso, obligación de indemnizar a la Administración, por los daños y perjuicios, en los términos previstos en el artículo 194 del LCSP.

## ***BIGARREN ATALA: KONTRATUAREN XEDE DEN PRESTAZIOA EGITEA ETA EMATEA***

### 44.- KONTRATUAREN XEDE DEN PRESTAZIOA EGITEA ETA EMATEA.

1.- Kontratuaren xedea finkatutako epearen barruan gauzatu beharko du esleipendunak, eta kontratuaren arduradunak, hala egokituz gero, aurkeztutako dokumentazioaren azterketa bat egingo du eta, baldintza teknikoak betetzen direla jotzen badu, lan horiei harrera eman diezaietela proposatuko du.

## ***SECCIÓN SEGUNDA: LA REALIZACIÓN Y ENTREGA DE LA PRESTACIÓN OBJETO DEL CONTRATO.***

### 44.- LA REALIZACIÓN Y ENTREGA DE LA PRESTACIÓN OBJETO DEL CONTRATO.

1.- El adjudicatario deberá haber realizado el objeto del contrato dentro del plazo estipulado, efectuándose por el responsable del contrato, en su caso, un examen de la documentación presentada y si estimase cumplidas las prescripciones técnicas propondrá que se lleve a cabo la recepción.

2.- Kontratuaren baldintza teknikoak betetzen ez direla jotzen badu, esleipendunari beharrezko jarraibide zehatzak emango dizkio idatziz, hautemandako akats edo hutsegiteak konpondu ditzan, eta idatzi horretan, halaber, horretarako finkatutako epea zehaztu eta egoki iruditzen zaizkion oharrak egingo dizkio.

2.- En el caso de que estimase incumplidas las prescripciones técnicas del contrato, dará por escrito al adjudicatario las instrucciones precisas y detalladas con el fin de remediar las faltas o defectos observados, haciendo constar en dicho escrito el plazo que para ello fije y las observaciones que estime oportunas.

3.- Kontratuaren arduradunak egindako ohar horiekin loturik esleipendunak erreklamazioren bat egiten badu, arduradun horrek, bere txostenarekin batera, kontratazio-organoari jakinaraziko dio, eta hark hartuko du gai horri buruzko ebazpena.

3.- Si existiese reclamación por parte del adjudicatario respecto de las observaciones formuladas por el responsable del contrato, éste la elevará, con su informe, al órgano de contratación, que resolverá sobre el particular.

4.- Esleipendunak ez badu idatziz erreklamaziorik jartzen kontratuaren arduradunak egindako oharren inguruan, horiekin ados dagoela ulertuko da, eta hautemandako akats horiek zuzentzera edo konpontzera behartua egongo da.

4.- Si el adjudicatario no reclamase por escrito respecto a las observaciones del responsable del contrato, se entenderá que se encuentra conforme con las mismas y obligado a corregir o remediar los defectos observados.

**45.- HARRERA EGITEA ETA LIKIDATZEA.**

1.- Esleipendunak kontratua bete duela ulertuko da bertako baldintzei jarraiki eta Udalaren borondatearekin bat etorriz haren xedea guztiz gauzatzen denean.

2.- Aurreko klausulan adierazitako izapideak bete ondoren, eta APKLAOko 204.3. artikuluan aurreikusitakoari begira, kontratuaren xede den prestazioak beharrezko baldintzak betetzen dituela jotzen bada, horri harrera emango zaio.

3.- Harrera emateko edo adostasunezko ekitaldi formal eta positiboa kontratuaren xedea eman edo gauzatu ondorengo lehen hilabetearen barruan egingo du Udalak.

Ekitaldi hori Kontu-hartzailetza Nagusiari jakinaraziko zaio, horretan lagundu dezan, inbertsioaren egiaztapen materiala egiteko kontu-hartzailetzaren eginkizunak burutuz.

**45.- RECEPCIÓN Y LIQUIDACIÓN.**

1.- El contrato se entenderá cumplido por el adjudicatario cuando éste haya realizado, de acuerdo con los términos del mismo, y a satisfacción del Ayuntamiento, la totalidad de su objeto.

2.- Una vez cumplidos los trámites señalados en la cláusula anterior, y a efectos de lo previsto en el artículo 204.3 del RGLCAP si se considera que la prestación objeto del contrato reúne las condiciones debidas, se procederá a su recepción.

3.- El acto formal y positivo de recepción o conformidad se efectuará por parte del Ayuntamiento dentro del mes siguiente de haberse producido la entrega o realización del objeto del contrato.

Dicho acto será comunicado a la Intervención General, a efectos de su asistencia al mismo en el ejercicio de sus funciones de intervención de la comprobación material de la inversión.

4.- Berme-epea amaitzen ez den bitartean, esleipendunaren erantzukizuna izango da kontratuaren xede den prestazioa egoki gauzatzea eta bertan topatu daitezkeen akatsak zuzentzea, eta haren prestakuntzan Udaleko ordezkariek hura aztertu edo onartu izana, edo egiaztapen, balioespen edo ziurtapen partzialen bidez onartu izana ez da salbuespenerako motibo izango eta ez du inolako eskubiderik emango.

4.- Hasta que tenga lugar la finalización del plazo de garantía, el adjudicatario responderá de la correcta realización de la prestación objeto del contrato y de los defectos que en ella hubiera, sin que sea eximente ni otorgue derecho alguno la circunstancia de que los representantes del Ayuntamiento los hayan examinado o reconocido durante su elaboración, o aceptado en comprobaciones, valoraciones o certificaciones parciales.

5.- Esleipendunaren prestazioak ez baditu betetzen horri harrera emateko beharrezkoak diren baldintzak, idatziz jarraibide egokiak emango zaizkio hautemandako akatsak zuzendu ditzan eta horretarako finkatzen den epean bere betebeharrak bete ditzan, eta ez zaio harrerarik emango, jarraibide horiek egoki betetzen diren arte.

5.- Si la prestación del adjudicatario no reuniere las condiciones necesarias para proceder a su recepción, se dictarán por escrito las instrucciones oportunas para que subsane los defectos observados y cumpla sus obligaciones en el plazo que para ello se fije, no procediendo la recepción hasta que dichas instrucciones hayan sido cumplimentadas.

6.- Egindako lanak ez bazaizkio egokitzen kontratatutako prestazioari, esleipendunari egotz dakizkiokeen akats edo hutsegiteen ondorioz, kontratazio-organoak baztertu ahal izango du, ordaindu behar izatetik salbuetsita geratuko da edo, hala egokituz gero, ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea izango du.

6.- Si los trabajos efectuados no se adecuan a la prestación contratada, como consecuencia de vicios o defectos imputables al adjudicatario, el órgano de contratación podrá rechazar la misma, quedando exento de la obligación de pago o teniendo derecho, en su caso, a la recuperación del precio satisfecho.

**46.- KONTRATUAREN XEDE DEN PRESTAZIOAREN JABETZA.**

Kontratua gauzatzean landutako azterlan eta agiri guztiak, hala egokituz gero, Udalaren jabetzakoak izango dira, eta osorik edo horien zati bat erreproduzitu, argitaratu eta ezagutzera eman ahal izango ditu, eta lanak egin dituen esleipendunak ezingo dio horri uko egin.

Esleipendunak ezingo du kontratu hori gauzatzean landutako azterlan eta agiriak erabili edo ezagutzera eman, dela osorik edo dela horien zati bat, zuzenean nahiz laburtuta, kontratazio-organoaren berariazko baimenik eduki ezean.

Jabetza intelektual edo industrialaren eskubideren batek babestutako produktuak garatzea edo eskuragarri jartzea helburutzat duten kontratuek, berekin batera, Udalaren erabilera-baimena edukiko dute.

**46.- PROPIEDAD DE LA PRESTACIÓN OBJETO DEL CONTRATO.**

Todos los estudios y documentos elaborados, en su caso, en ejecución del contrato serán propiedad del Ayuntamiento, quien podrá reproducirlos, publicarlos y divulgarlos total o parcialmente sin que pueda oponerse a ello el adjudicatario autor de los trabajos.

El adjudicatario no podrá hacer ningún uso o divulgación de los estudios y documentos elaborados con motivo de la ejecución de este contrato, bien sea en forma total o parcial, directa o extractada, sin autorización expresa del órgano de contratación.

Los contratos que tengan por objeto el desarrollo y la puesta a disposición de productos protegidos por un derecho de propiedad intelectual o industrial, llevarán aparejada la autorización de su uso al Ayuntamiento.

## HIRUGARREN ATALA: BERME-ALDIA

**47.- BERME-ALDIA.**

1.- Hala badagokio, baldintza-orri hauen I Eranskineko A.I.28 apartatuan adierazten da zein den kontratu hau gauzatzeko berme-epea.

Ezartzen bada, epe horren barruan, behin betiko bermearen bidez erantzungo zaio SPKLko 110. artikuluan adierazi diren eta aplikagarri diren kontzeptuei.

2.- Harrera partzialak egiten baldin badira, harrera eman zaien zati horien berme-aldia dagozkion harrera partzialen datetatik aurrera hasiko dira kontatzen.

3.- Horretarako izendaturiko kontratuko teknikari arduradunak txosten bat egingo du, egindako lan hori eskatutako baldintza teknikoekin bat datorren esango duena eta, baldintza horiek betetzat jotzen baditu, harrera egiteko proposatuko dio kontratazio-organoari.

4.- Baldin eta berme-aldi horretan egiaztatzen bada egindako prestazioak ez dituela betetzen beharrezkotzat eskatutako baldintzak, kontratista behartua egongo da, Udalaren agindupean, hautemandako hutsuneak hark adierazitako epean konpontzera.

5.- Berme-aldia Udalak erreparorik formalizatu gabe igaro bada, kontratista edozein erantzukizunetik salbuetsia geratuko da, salbu eta, hala egokituz gero, kalteengatik beste hirugarren batzuen aurrean dukeen erantzukizun zibiletik.

## SECCION TERCERA: PLAZO DE GARANTÍA

**47.- PLAZO DE GARANTÍA.**

1.- El establecimiento, en su caso, del Plazo de Garantia para la ejecución de este contrato se señala en el apartado A.I.28 del Anexo I de este Pliego.

De establecerse, durante dicho plazo la garantía definitiva responderá de los conceptos señalados en el artículo 110 de la LCSP, que resulten de aplicación.

2.- En el supuesto de que hubiere recepciones parciales, el plazo de garantía de las partes recibidas comenzará a contarse desde las fechas de las respectivas recepciones parciales.

3.- Por el técnico responsable del contrato designado al efecto, se emitirá un informe sobre la conformidad del trabajo realizado con las prescripciones técnicas exigidas y si estimase cumplidas éstas, propondrá al órgano de contratación, que se lleve a cabo la recepción.

4.- Si durante el plazo de garantía se acreditase que la prestación realizada no reuniera las condiciones exigidas, el contratista viene obligado, a la orden del Ayuntamiento, a subsanar los defectos observados en el plazo indicado por éste.

5.- Terminado el plazo de garantía sin que el Ayuntamiento haya formalizado reparos, el contratista quedará exento de responsabilidad, salvo, en su caso, de la responsabilidad civil de daños y perjuicios ante terceros.

## LAUGARREN ATALA: UDALAREN PRIBILEGIOAK ETA AHALMENAK ETA HELEGITEAK

**48.- UDALAREN ARDURAK ETA AHALMENAK.**

## SECCIÓN CUARTA: PRERROGATIVAS Y FACULTADES DEL AYUNTAMIENTO Y RECURSOS.

**48.- PRERROGATIVAS Y FACULTADES DEL AYUNTAMIENTO.**

1.- SPKLan adierazitako mugen barruan eta betebeharrei eta ondorioei lotuz, kontratazio-organoaren ardura da administrazio-kontratuak interpretatzea, hori betetzean sor daitezkeen zalantzak argitzea, interes publikoko arrazoiengatik aldatzea, kontratua burutzearen ondorioz esleipendunari egotz dakiokeen erantzukizuna finkatzea, horren exekuzioa etetea, amaitutzat erabakitzea eta horrek dituen ondorioak erabakitzea.

1.- Dentro de los límites y con sujeción a los requisitos y efectos señalados en la de la LCSP, el órgano de contratación ostenta la prerrogativa de interpretar los contratos administrativos, resolver las dudas que ofrezca su cumplimiento, modificarlos por razones de interés público, declarar la responsabilidad imputable al adjudicatario a raíz de la ejecución del contrato, suspender la ejecución del mismo, acordar su resolución y determinar los efectos de esta.

Era berean, kontratazio-organoarena da kontratua burutu bitartean esleipendunek garatutako jarduerak ikuskatzeko ahalmena, SPKLan kontratu-mota bakoitzarentzat ezarritako hitzetan eta mugekin. Ikuskaritza-ahalmen horiek ez dute inola ere esan nahi kontratazio-organoak eskubide orokorra duenik instalazioak, bulegoak eta esleipendunak bere jarduerak burutzeko darabiltzan gainerako eremuak ikuskatzeko, eremu horiek eta horien baldintza teknikoak kontratuaren xede diren prestazioak burutzeko erabakigarriak izan ezik, eta xehetasun horiek berariaz eta zehaztasunez justifikatuta geratu behar dute administrazio-espedientean.

Igualmente, el órgano de contratación ostenta las facultades de inspección de las actividades desarrolladas por los adjudicatarios durante la ejecución del contrato, en los términos y con los límites establecidos en la de la LCSP para cada tipo de contrato. En ningún caso dichas facultades de inspección podrán implicar un derecho general del órgano de contratación a inspeccionar las instalaciones, oficinas y demás emplazamientos en los que el adjudicatario desarrolle sus actividades, salvo que tales emplazamientos y sus condiciones técnicas sean determinantes para el desarrollo de las prestaciones objeto del contrato, extremos que deberán quedar justificados de forma expresa y detallada en el expediente administrativo.

Arestian ezarritako ardura horiei dagozkien erabakiak hartzeko prozedurak SPKLko 191. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz bideratuko dira.

Los procedimientos para la adopción de acuerdos relativos a las prerrogativas establecidas anteriormente, se instruirán de conformidad con lo dispuesto en el artículo 191 de la LCSP.

Kontratazio-organoak hartzen dituen erabakiek amaiera emango diote administrazio-bideari eta berehala bete beharrekoak izango dira.

Los acuerdos que adopte el órgano de contratación pondrán fin a la vía administrativa y serán inmediatamente ejecutivos.

2.- Subsidiarioki gauzatzeko aukera izango da baldin eta kontratistak, nahitaez norberak egin beharrekoa ez delako, hark ez beste subjektu batek bete dezakeen obligazioren bat konplitzen ez badu. Kasu horretan, Udalak egin ahalko ditu, kontratistaren kontura, konplitu gabeko obligazioak, bere kabuz edo erabakitzen dituen beste batzuen bidez.

2.- Habrá lugar a la ejecución subsidiaria cuando el contratista incumpla obligaciones que por no tener carácter de personalísimas, puedan ser realizadas por otro sujeto distinto del mismo. En este caso, el ayuntamiento podrá realizar, a costa del contratista, por sí o por otros que determine las obligaciones incumplidas

**49.- HELEGITEAK.**

**49.- RECURSOS.**

Administrazio-bideari amaiera ematen dioten erabakien aurka, administrazioarekiko auzietako errekurtsoa jarri ahal izango da, jurisdikzio hori arautzen duen legean xedaturikoaren arabera; hori, ordea, ez da eragozpen izango, hala badagokio, SPKLko 44. artikuluak araututako kontratazio arloko helegite berezia jartzeko, edo 30/1992 Legean arautuetako edozein.

Errekurtso berezi baten bidez aurkaratutako jarduketen kasuan, ez da bidezkoa izango administrazio-errekurtso arruntak jartzea.

Contra los acuerdos que pongan fin a la vía administrativa procederá el recurso contencioso-administrativo conforme a lo dispuesto en la Ley reguladora de dicha Jurisdicción; sin perjuicio de que, en su caso, proceda la interposición del recurso especial en materia de contratación regulado por el artículo 44 de la LCSP, o cualquiera de los regulados en la Ley 39/2015.

Contra las actuaciones que, en su caso, hubieran sido impugnadas mediante recurso especial, no procederá la interposición de recursos administrativos ordinarios.